



AKTEA/11

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA  
(2026-05-26)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2026-05-26 (Asteartea)
Lekua:	Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia
Hasiera-ordua:	08:30
Amaiera-ordua:	08:45
Alkate-Presidentea:	NEMEH SHOMALY NADIA
Batzordekideak:	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA ORTUZAR BUTRON XABIER CARUEZO UGALDE MAITE
Bertaratu ez direnak:	URIARTE ANASAGASTI VICTOR GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE
Idazkaria:	BAREÑO DUÑABEITIA GOTZON



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772

Datea: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



## Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2026-05-19 TGB (10)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.
- 3.- Udal artxiboko dokumentazioaren xahuketa onartzea.
- 4.- Eusko Jaularitzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Bermeoko Udala toki-entitateak 2023ko azaroaren 28an sinatutako hitzarmenaren 12.1 klausula eta 18. klausula aldatzea onartzea.
- 5.- 7.3 Exekuzio unitatean, 48 etxebizitza, lokalak eta garajeak eraikitzeko obra lizentziaren iraungitze espedienteari hasiera ematea onartzea.
- 6.- Atalde 15ean kokatutako eraikinean igogailua kota Ora jaistea onartzea.
- 7.- 21.2 Unidateko 8 eta 11 partzeletan, obra lizentzia ematea onartzea.
- 8.- Arane auzoko 33. etxebizitza erreforma onartzea.
- 9.- Arostegi 17an igogailua jartzeko obra lizentziaren iraungitzea onartzea.
- 10.-Alkatetza dekretuen berri emotea. Maiatzak 11-15.
- 11.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaizta honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2026-05-19 TGB (10)

Bertaratutako batzarkideek 2026ko maiatzaren 19ko 10/2026 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

2



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

#### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



## 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERREDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

## 3.- UDAL ARTXIBOKO DOKUMENTAZIOAREN XAHUKETA ONARTZEA.

### Xedea

Artxiboan gordetako hainbat espedienteren xahuketa.

### Aurrekariak

Lehena: Udal artxiboen kudeaketa eta dokumentuen bizi-ziklo osoa arautzen duten xedapenek (5/2022 Legea, ekainaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu Kudeaketa Integralarena eta Dokumentu Ondarearena, Euskadiko Dokumentu Kudeaketari buruzko 232/2000 Dekretua eta Euskadiko Kultura Ondarearen 6/2019 Legea) ezartzen dute dokumentazio-serie bakoitzaren kontserbazio-epeak eta xahuketa-prozedurak zehaztu behar direla.

Bigarrena: Euskadiko Dokumentu Kudeaketari buruzko 232/2000 Dekretuak, artxibo zerbitzuetako araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio ondarea erregulatzen duen Erregelamenduaren 14. Artikuluan, xahuketaren prozesua eta Dokumentazioa balioesteko eta Aukeratzeko Organo eskudunen berri ematen du. Honen arabera, Balorazio- eta hautaketa-batzorde propiorik ez duten erakundeak "dokumentazioa kontserbatzeko egutegiak eta balorazio- eta hautaketa-proposamenak Dokumentazioa Balioesteko eta Hautatzeko Batzordearen (COVASED) alde aurreko eta nahitaezko txostenaren mende jarriko dira". Era berean, 5/2022 Legeak, 11.8 artikuluan, honako hau dio: "Kontserbazio- eta eskuratzeko-egutegia artikuluan honen 5. atalean ezartzen den bezala argitaratu den dokumentazioa ezabatzeko edo ez ezabatzeko erabakia erakunde titular bakoitzari dagokio"



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261467772
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04		Datea: 28/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



Hirugarrena: Udal artxihoan bulego artxihoetan tokirik ez duten dokumentuak gordetzen dira. Dokumentu horietako asko ez dira betiko gorde behar. Udal artxihoak Bitarteko Artxihoaren funtzioa betetzen du, hau da, bere balio administratibo, fiskal eta juridikoa galtzen duten arte gorde behar diren dokumentuen bitarteko gordailua da.

Laugarrena: Udal artxihoan azken urtean egindako azterketak agerian utzi du dokumentazio-serie jakin batzuek jada bete dituztela beren balio administratibo, fiskal eta juridikoko epeak. Gainera, biltegitratze espazio beharrak xahuketa kontrolatua gauzatzea gomendatzen dute.

### Argudioak

Lehenengoa: Azken 25 urtetan artxihoan jaso diren bulego artxihoetako dokumentuak aztertuta honako hauek balio administratibo, fiskal eta juridikoa galdu dute:

serie dokumentala	sailkapen kodea	urteak	m/l
Sarrera-aginduen espedienteak	03-03-03-04	1994 - 1996	2
Sarrera-aginduen espedienteak	03-03-03-04	2003 - 2009	4,5
Ordainketa-aginduen espedienteak	03-03-01-13	1994 - 1996	13,3
Ordainketa-aginduen espedienteak	03-03-01-13	2003 - 2009	41
Ondarezko erantzukizuneko espedienteak	3-2-2-8	1994 - 2015	6,7
Hiri Lurren Balio Gehitzearen gaineko Zerga	3-2-2-13	2000 - 2003	2,25

Bigarrena: Dokumentazioa Balioesteko eta Hautatzeko Batzordeak (COVASED) sail dokumental hauen txostenak argitaratu.

- Kulturako Sailburuaren 2013 ko otsailaren 18ko, 34 zenbakidun aginduaren arabera Sarrera-aginduei buruzko espedienteak guztiz xahutu ahal dira 15 urte pasa ondoren.



- Kulturako Sailburuaren 2013 ko otsailaren 18ko, 34 zenbakidun aginduaren arabera Ordainketa-aginduei buruzko espedienteak guztiz xahutu ahal dira 15 urte pasa ondoren.
- Kulturako Sailburuaren 2012 ko azaroaren 29ko, 231 zenbakidun aginduaren arabera Ondarezko erantzukizunari buruzko espedienteak guztiz xahutu ahal dira 5 urte pasa ondoren.
- Kulturako Sailburuaren, 2013 ko otsailaren 18ko, 34 zenbakidun aginduaren arabera, Hirilurren Balio Gehikuntzaren Gaineko Zergari buruzko espedienteak guztiz xahutu ahal dira 20 urte pasa eta gero.

Hirugarrena: Serie dokumental hauek ez dute interes historiko iraunkorrik ezta informazio-balio nabarmenik ikerketa perspektibatik. Ez dira lagin adierazgarriak kontserbatzeko nahikotzat jotzen ere. Gehienetan, jasotzen duten informazioa, beste euskarri batzuetan dago laburbilduta.

Laugarrena: Xahuketa proposamena bat dator udalaren artxibo-politikarekin eta dokumentuen bizi-zikloaren kudeaketa egokiarekin. Hau da, kontserbazio selektiboa eta informazioaren efizientzia sustatzen ditu.

Bosgarrena: Datu-babesa eta arrisku-kudeaketaren aldetik, dokumentazioan ager daitezkeen datu pertsonalak beharrezkoa den epea baino gehiago ez gordetzeko printzipioa betetzeko, xahuketa egokia da.

Seigarrena: Xahuketa proposamenak bete egiten ditu prozedura-berme guztiak: identifikazioa, zerrendaketa zehatza, epeen egiaztapena, organo eskudunaren baimena, eta suntsiketa-akta formalaren sorrera.

Zazpigarrena: Prozedura kontrolatuek bermatuko dute suntsiketa segurua eta konfidentzialtasuna.

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:



### Sinadurea eta data



**LEHENENGOA:** Udal Artxiboan dauden ondorengo sail dokumentalen guztizko xahuketa onartzea Dokumentazioa Balioesteko eta Hautatzeko Batzordeak (COVASED) sail dokumental hauei buruz argitaratutako aginduen babesean:

- 1994 eta 1996 urte arteko Sarrera-aginduei buruzko espedienteak. 2 m/l
- 2003 eta 2009 urte arteko Sarrera-aginduei buruzko espedienteak. 4,5 m/l
- 1994 eta 1996 urte arteko Ordainketa-aginduei buruzko espedienteak. 13,3 m/l
- 2003 eta 2009 urte arteko Ordainketa-aginduei buruzko espedienteak. 41 m/l
- 1994 eta 2015 urte arteko Ondarezko erantzukizunari buruzko espedienteak. 6,7 m/l
- 2000 eta 2003 urte arteko Hiri Lurren Balio Gehitzearen gaineko Zergari buruzko espedienteak. 2,25 m/l

**BIGARRENA:** Suntsiketa prozesua konfidentzialtasun neurri guztiak bermatuko dituen enpresa espezializatu baten bidez egitea.

**HIRUGARRENA:** Behin prozesua amaituta, dagokion xahutze-akta idaztea eta Euskadiko Dokumentu Balorazio Batzordeari jakinaraztea.

#### **4.- EUSKO JAULARITZAKO TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK ETA BERMEOKO UDALA TOKI-ENTITATEAK 2023KO AZAROAREN 28AN SINATUTAKO HITZARMENAREN 12.1 KLAUSULA ETA 18. KLAUSULA ALDATZEA ONARTZEA.**

##### **Xedea**

Eusko Jaularitzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Bermeoko Udala toki-entitateak 2023ko azaroaren 28an sinatutako hitzarmenaren 12.1 klausula eta 18. klausula aldatzea.

##### **Aurrekariak**

**Lehenengoa.-** Bermeoko Udalak Eusko Jaularitzak kudeatutako Next Generation



Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772
Data: 28/05/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



Europako laguntzetara eskaria aurkeztu zuen, eta aurkeztutako proiektua onartu zen.

Bigarrena.- Hautatua izan zen "Bermeo, helmuga ekoturistikoa: bertako natura eta kultura-ondarea zaintzea eta balioestea" Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana garatzeko, Eusko Jaurlaritzak hitzarmen proposamen bat aurkeztu zuen.

Hirugarrena.- 2023ko abuztuaren 9an, Turismo teknikariak, hitzarmenaren gaineko justifikatze memoria egin zuen.

Laugarrena.- 2023ko abuztuaren 9an, Bermeoko Udaleko Idazkaritza Saileko Administrazio Orokorreko teknikariak txosten juridikoa egin zuen.

Bosgarrena.- 2023ko abuztuaren 10ean, Kontu Hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena egin zuen.

Seigarrena.- 2023ko irailaren 26an, Bermeoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak Jasangarritasun Turistikoaren Plana egikaritzeko, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Komertzio eta Kontsumo Sailarekin lankidetzat hitzarmena sinatzea onartzea erabaki zuen.

Zazpigarrena.- 2023ko azaroaren 28an, hitzarmena sinatu zen.

Zortzigarrena.- 2024ko maiatzaren 24an, Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Bederatzigarrena.- 2024ko maiatzaren 27an, 2024 000002829 Alkatetza Dekretuz, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak, 2024ko apirilaren 30ean egindako bileran, 2023ko Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plana gauzatzeko Gobernu Kontseiluak 2023ko urriaren 31n baimendutako hitzarmenen aldaketaren eranskina onartzea eta izenpentzea erabaki zen.

Hamargarrena.- 2025eko apirilaren 4an, Eusko Jaurlaritzak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Bermeoko Udala toki-entitateak 2023ko azaroaren 28an sinatutako hitzarmenaren 18. klausularen 1. atala aldatzeko dokumentuak bidali zituen.

Hamaikagarrena.- 2025eko apirilaren 8an, Bermeoko Udaleko Urigintza teknikariak txostena egin zuen.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 2026146772
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026		Datea: 28/05/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026		Lekua: Bermeon
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04		Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



Hamabigarrena.- 2025eko apirilaren 8an, 2025 1406 Alkatetza Dekretuz, 18. klausularen 1. atala aldatzea onartu zen.

Hamahirugarrena.- 2026ko otsailaren 3an, Eusko Jaularitzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Bermeoko Udala toki-entitateak 2023ko azaroaren 28an sinatutako hitzarmenaren 6.1 klausularen 4. atala, 12. klausularen 1. atala eta 12. klausularen e) atala aldatzeko, 18. klausula aldatzeko eta 12. Klausulan 7. atal berri bat sartzeko dokumentuak bidali zituzten.

Hamalauugarrena.- 2026ko otsailaren 11n, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

Hamabosgarrena.- 2026ko otsailaren 12an, 2026 904 Alkatetza Dekretuz Eusko Jaularitzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Bermeoko Udala toki-entitateak 2023ko azaroaren 28an sinatutako hitzarmenaren 6.1 klausularen 4. atala, 12. klausularen 1. atala eta 12. klausularen e) atala aldatzeko, 18. klausula aldatzeko eta 12. Klausulan 7. atal berri bat sartzeko aldaketa gehigarria sinatzea erabakia hartu zen.

Hamaseigarrena.- 2026ko maiatzaren 19an, Eusko Jaularitzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Bermeoko Udala toki-entitateak 2023ko azaroaren 28an sinatutako hitzarmenaren 12.1 klausula eta 18. klausula aldatzeko dokumentuak bidali zituzten.

Hamazazpigarrena.- 2026ko maiatzaren 19an, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

## Argudioak

Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2023ko azaroaren 28an Bermeoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Bermeo, helmuga ekoturistikoa: bertako natura eta kultura-ondarea zaintzea eta balioestea” Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana garatzeko hitzarmena sinatu zuten.

Orain, Bermeoko Udalak Eusko Jaurlaritzaren aldetik jasotako dokumentazioa aztertu ondoren, hitzarmen horren objektu diren zenbait klausulen aldaketa planteatzen da:

12. klausularen 1. atalean, hau jartzen zuen lekuan:



*“El plazo de ejecución de las actuaciones subvencionables objeto de este convenio será hasta el 31 de marzo de 2026.”*

Hau jartzea aurreikusten da:

*“El plazo máximo para la ejecución de las actuaciones subvencionables previstas en el presente convenio se extenderá hasta el 30 de junio de 2026.”*

12. klausularen 1. atalean hau jartzen zuen lekuan:

*“El Ayuntamiento de Bermeo finalizada la ejecución (30 de junio de 2026), la justificará ante el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo de Gobierno Vasco como máximo, en el plazo de 2 meses, presentando una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas y una memoria económica, teniendo en cuenta las singularidades establecidas en el artículo 63 del Real Decreto-Ley 36/2020, de 30 de diciembre, que contendrá la siguiente documentación:*

*(...)*

*No obstante, si la ejecución del Plan finaliza antes del 30 de junio de 2026, se podrá presentar la justificación a la que se refiere el artículo 30 y siguientes de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones de manera anticipada ante la dirección competente en materia de Turismo, de manera que entidad beneficiaria podrá presentar la justificación sin necesidad de esperar al plazo general, una vez concluida la ejecución del mismo.”*

Hau jartzea aurreikusten da:

*“El Ayuntamiento de Bermeo finalizada la ejecución del Plan y justificado el hito a 30 de junio de 2026, justificará, de conformidad con lo previsto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, ante la Dirección de Turismo del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo de Gobierno Vasco la subvención recibida, como máximo, en el plazo de 3 meses -hasta el 30 de septiembre de 2026-, presentando una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas y una memoria económica, teniendo en cuenta las singularidades establecidas en el artículo 63 del Real Decreto-Ley 36/2020, de 30 de diciembre, que contendrá la siguiente documentación:*

*(...)*

*Se podrá aprobar excepcionalmente una ampliación del plazo establecido para la presentación de la justificación de la subvención, que no exceda de la mitad de este,*



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261467772
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04		Datea: 28/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidaatea: Erregistro nagusia



siempre que no se perjudiquen derechos de terceros y concurran circunstancias que justifiquen debidamente dicha ampliación, sin que la misma suponga perjuicio para las obligaciones de seguimiento y rendición asumidas por la Comunidad Autónoma frente a la Secretaría de Estado de Turismo. La solicitud deberá presentarse ante la dirección competente en materia de turismo y hostelería antes del vencimiento del plazo.”

#### 18. klausulan, hau jartzen duen lekuan:

“1.- El presente convenio se extenderá hasta el 30 de septiembre de 2026.

2.- En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto en el párrafo anterior, los firmantes del Convenio podrán acordar unánimemente su prórroga o su extinción, conforme a lo dispuesto en el artículo 49 h) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.”

#### Honako hau jartzea:

“1.- El presente convenio se extenderá hasta el 28 de febrero de 2027.

2.- En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto en el párrafo anterior, los firmantes del Convenio podrán acordar unánimemente su prórroga, o su extinción, conforme a lo dispuesto en el artículo 49 h) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.”

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Bermeoko Udalarekin 2023ko azaroaren 28an sinatutako, eta indarrean dagoen hitzarmenari eranskin bat gehitzea proposatzen da, klausula jakin batzuk aldatu eta beste klausula bati atal berri bat gehitzeko asmoz, batez ere gauzatze eta justifikatze epeei zein justifikatzeko prozeduraren zehaztasunei dagokienez.

Aldaketa horiek ez dute hitzarmenaren xedea edo helburua aldatzen; are gehiago, proiektuaren egungo beharretara egokitzen dute, jarduketan plangintza zuzena zein justifikazioa egiteko epea luzatuz. Bi horiek hartutako betebeharrak betetzen direla bermatzen laguntzen dute, administrazioaren arriskuak murriztuz eta hitzarmenaren kudeaketaren efizientzia hobetuz.

**Bigarrena.-** Hitzarmenaren aldaketa eta klausula berria sartzearen onarpena ebazteko eskumena, Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261467772
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04		Datea: 28/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



Legea onartzen dagoen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, eta Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.b) artikulua arabera, hitzarmena sinatzeko ahalmena alkateari dagokio; bestalde, 2026ko otsailaren 26ko 2026/1131 Alkatetza Dekretuaren arabera, Bermeoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrean dago delegatuta.

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Bermeoko Udala toki-entitateak 2023ko azaroaren 28an sinatutako hitzarmenaren 12. klausularen 1. Atala eta 18. Klausula aldatzea onartzea. (dokumentuak elebidun eransten dira)

BIGARRENA.- Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako sail eskudunari igortzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea hurrengoko Osoko Bilkuran.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772

Fecha: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



**ALDAKETA-GEHIGARRIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN (TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAREN BIDEZ) ETA BERMEOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENARENA, “BERMEO, HELMUGA EKOTURSITIKOA: BERTAKO NATURA ETA KULTURA ONDAREA ZAINTEA ETA BALIOESTE” HELMUGAKO TURISMO-JASANGARRITASUNEN PLANA GAUZATZEKO. PLAN HORI EUSKADIKO HELMUGAKO TURISMO-JASANGARRITASUNEN 2023 LURRALDE-PLANARI DAGOKIO, ETA EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION EU FUNTSEK FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN BARRUAN DAGO.**

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data

Alde batetik, Javier Hurtado Domínguez jauna, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua, lehendakariaren ekainaren 24ko 32/2024 Dekretuaren bidez izendatua (2024ko ekainaren 25eko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa, eta hitzarmena aldatzeko gehigarri hau formalizatzeko baimena duena, Gobernu Kontseiluaren 2026ko urtarrilaren 20ko Erabakiaren bidez.

Bestetik, Nadia Nemeš Shomaly anderea, Bermeoko udaleko alkatea, erakunde onuraduna eratzeko bilkuran hautatua, 2023ko ekainaren 28an, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. eta 26. artikuluetan xedatutakoaren arabera jardunez, eta hitzarmenaren gehigarri hau sinatzeko ahalmena izanik, 2026ko otsailaren 12ko Alkatetza Dekretuaren (2026 – 00000904 AD) bidez.

Alderdiak beren erakundearen ordezkari gisa agertu dira, eta elkarri aitortu diote hitzarmen honen gehigarri formalizatzeko gaitasuna, eta, horretarako, honako hau

**ADIERAZTEN DUTE**

1. 2020ko uztailaren 21ean, Europako Kontseiluak Suspertze Planari eta 2021-2027 aldirako Urte Anitzeko Finantza Esparruari buruzko ondorioak onartu zituen. Ondorio horiek «Next Generation EU» Europako Suspertze Tresna abian jartzearekin indartutako urte anitzeko finantza-esparrua osatzen dute. Tresna horren elementu nagusia Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren bidez ezarritakoa. Europako Suspertze Funtsetik eratorritako finantza-baliabideak Europar Batasunak finantzatutako NextGenerationEU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) bidez gauzatzen dira (Ministro Kontseiluaren 2021eko apirilaren 27ko Erabakiaren bidez onartu zen), Espainiako SEEParen ebaluazioa onartzei buruzko Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko Betearazpen Erabakian (Council Implementing Decision – CID) xedatutakoarekin bat etorriz.

2. SEEPean, 14. osagaiaren barruan («Turismo-eredua jasangarritasunerantz eraldatzea»), C14.11 inbertsio-lerroa sartzen da (2. azpineurria: Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Planen Programa), zeina 2021-2023 Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Ezohiko Programan gauzatzen baita. Programa hori autonomia-erkidegoetara egokitu zen lurraldeka, eta 2022ko deialdiaren bidez eratu zen. Hala, Euskadiko Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Plana sortu zen, Turismoko Estatu

12



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEŠ SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772

Data: 28/05/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



Idazkaritzaren 2022ko abenduaren 19ko Ebazpenaren bidez onartua. Ebazpen horren bidez, Turismoko Konferentzia Sektorialaren Erabakia argitaratu zen, SEEParen 14. osagaiaren 1. inbertsioaren esparruan toki-erakundeen inbertsio-jarduketak finantzatzera bideratutako kreditua autonomia-erkidegoen artean banatzeko eta banatzeko irizpideak ezartzen dituen. Ezarritako prozeduraren arabera egokitzat jotako destino bakoitzari esleitutako laguntzak bideratzeko, hitzarmen tipoak egin ziren. Hitzarmen horiek 2023ko urriaren 31ko Gobernu Kontseiluan onartu ziren, eta, Bermeoko Udalaren kasuan, 2023ko azaroaren 24an sinatu ziren Turismo, Merkataritza eta Turismo Sailarekin.

3. Hitzarmenak formalizatu ondoren, eta finantzatzutako jarduketak gauzatzearen esparruan, beharrezkoa da SEMaren justifikazio- eta itxiera-fasea aurreikustea, une erabakigarria baita gastuen hautagarritasuna eta prozeduren erregularitasuna bermatzeko. Justifikazio-dokumentazioaren plangintza egokia eta aurkeztutako proben sendotasuna funtsezko elementuak dira proiektuak behar bezala amaitzen direla ziurtatzeko eta finantzaketa ukatzeko edo galtzeko arriskuak saihesteko.

4.- 2023ko urriaren 2an, KONTSEILUAREN BETEARAZPEN-ERABAKIAREN proposamena eman zen, zeinaren bidez aldatzen baita Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko Betearazpen Erabakia (ST 10150/2021; ST 10150/2021 ADD 1 REV 1), Espainiako suspertze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa. Honako hau ezartzen du:

«Inbertsio horren esparruko jarduketak 2021eko urtarrilaren 1etik 2026ko ekainaren 30era bitartean egingo dira, toki-erakundeei 2021eko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean ordaintzeko epearekin eta 2026ra arte luzatuko den gauzatze-epearekin. Inbertsio honen esparruan helmuga turistikoen jasangarritasuna sustatzeko proiektuek 2026ko ekainaren 30a baino lehen amaituta egon beharko dute. Inbertsioaren ezarpena, beranduenez, 2026ko ekainaren 30ean amaituko da ". 221. mugarrria betetzeari dagokionez, honako hau ezartzen du:

221	C14.II	Hito	Finalización de los proyectos de promoción de la sostenibilidad turística en destinos	Certificación de la ejecución	T2	2026	Finalización de todos los proyectos incluidos en los «Planes Territoriales de Sostenibilidad Turística en Destinos» y adjudicados en consonancia con los objetivos 217, 218 y 219, el 35 % de cuyos fondos se destinarán a financiar medidas que aborden la transición verde, la sostenibilidad y la eficiencia energética/electromovilidad en los destinos, de conformidad con la Guía técnica sobre la aplicación de principio de «no causar un perjuicio significativo» (DO C 58 de 18.2.2021, p.1) mediante el uso de una lista de exclusiones y el requisito de cumplimiento de la legislación medioambiental pertinente de la UE y nacional.
-----	--------	------	---	-------------------------------	----	------	--

5.- 2023ko urriaren 2an, Europako Batzordeak positiboki ebaluatu zuen Espainiako Gobernuaren suspertze-plana aldatzeko proposamena. Proposamen hori 2023ko urriaren 17an onartu zen, eta ECOFINek (EBko Finantzeta Ministro Kontseilua) berretsi egin zuen erabakia.

6.- Ondorioz, eranskinaren arabera, HTJPeK 2026ko ekainaren 30erako amaituta egon behar dute, eta, era berean, 221. mugarrria egun horretan justifikatu behar da, erakunde onuradunek egikaritze-ziurtagiria aurkeztuta (horren egiaztagiria), SETURK zehaztutakoa. Beraz, data horretan, mugarrria betetzeko eskatzen den dokumentazio guztia CoFEEen kargatuta egon beharko da, jarduketa gauzatu dela egiaztatzeko



zehaztutako dokumentua barne.

7.- Aldaketa horien ondoren, 2023ko abenduaren 29an egindako Turismoaren Konferentzia Sektorialak, besteak beste, Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Estrategia aldatzea onartu zuen. Aldaketa batek garrantzi berezia du. 8.1 atalean, "esku hartzeko tresnak" izenekoan, honako hau ezarri zen:

«Hiru urteko iraupena izango du, 2023ko Lurralde Planean onartutako HTJPak izan ezik, 2026ko ekainaren 30ean amaituko baitira». Beraz, 2022an onartutako HTJPak 2025eko abenduaren 31n amaitzen ziren, eta horrek anomalia bat zekarren; izan ere, SEM mekanismoa 2026ko ekainera arte dago martxan. Era berean, HTJPek CID 221 helburua bete behar dute: «2026ko bigarren hiruhilekoa: Helmugetako jasangarritasun turistikoko lurralde-planetan» sartutako proiektu guztien amaiera.

Horregatik, honako aldaketa hau sartu eta onartu zen:

"Hala ere, autonomia-erkidegoek exekuzio-epaia luzatzea onartu ahal izango dute, betiere arrazoituta badago eta 220. eta 221. CIDak betetzen direla bermatzen bada. Luzapen horiek SETURi jakinarazi beharko zaizkio aldebiko batzordean".

8.- Azkenik, Europako Batzordeak, BATZORDEAK EUROPAKO PARLAMENTUARI ETA KONTSEILUARI EGINDAKO KOMUNIKAZIOAN (NextGenerationEU – Camino a 2026), nabarmendu du estatu kideek alde aurretik planifikatu behar dutela frogak aurkeztea eta haien sendotasuna bermatu behar dutela, eta ohartarazi du SEMa ixteko fasea kritikoa izango dela, eta justifikazio-dokumentazioa nahikoa ez izateak gorabeherak, atzerapenak edo are Batasunaren finantzaketa galtzea ekar dezakeela. Jakinarazpen horrek kronograma hau ezartzen du:



9.- Ondorioz, 2026ko ekainaren 30ean, 2021, 2022 eta 2023ko deialdiei dagozkien HTJPen erakunde onuradun guztiek aurreikusitako jarduketak gauzatu beharko dituzte, eta CoFFEEen kargatu beharko dute 221. mugarrira eskatu eta justifikatu duen dokumentazioa, Europako Batzordeak eta SETURk ezarritako dokumentazioaren bidez (dokumentu-ebidentziak).

Hori dela eta, planak erabat betetzen direla bermatzeko eta 221. mugarrira justifikatzeko eskatzen den eta beharrezkoa den dokumentazio guztia CoFFEEen eskura jartzeko, 2021, 2022 eta 2023ko deialdiei dagozkien HTJPak gauzatzeko epea 2026ko ekainaren 30era arte luzatu zen.

10.- Ondoren, eta aipatutako komunikazioarekin bat etorriz, Ministro Kontseiluak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) sinplifikazio-gehigarria onartu zuen 2025eko abenduan, egiaztapen- eta betearazpen-prozesuak arintzeko, karga burokratikoak murrizteko, lehentasun estrategikoak indartzeko eta eskuragarri dauden baliabideen erabilera optimizatzeko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa amaitu



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatuta ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaada:  
Erregistro nagusia



aurretik.

2026ko urtarrilaren 20an, Ekonomia eta Finantza Gaietako Kontseiluak (ECOFIN) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (SEEP) gehigarri berri bat onartu zuen, Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planen Ezohiko Programaren CID mugarri eta helburuen idazketan aldaketak sartuz. Zehazki, 221. mugarria honela idatzita geratu da:

Number	Name	Qualitative indicator for milestones	Description of each milestone and target
221	Actions in "Territorial Plans for Tourism Sustainability at Destination"	Final reports for grant payments, or statements of conformity, certificates of completion of works, or equivalent certifying that contracts have been performed.  Informes finales para pagos de subvenciones; o declaraciones de conformidad; o certificados de finalización de obras; o documentos equivalentes que acrediten que los contratos han sido ejecutados.	Final reports confirming the completion of the activities awarded have been submitted by recipient entities or individuals for grants relating to "Territorial Plans for Tourism Sustainability at Destination", or confirmation by the administration that contracts works related to "Territorial Plans for Tourism Sustainability at Destination" have been performed, or the provision of certificates of completion of works related to "Territorial Plans for Tourism Sustainability at Destination", for a total cumulative number of 4200 actions . For the COM: ok.  "Informes finales que confirmen que las actividades adjudicadas han sido presentadas por las entidades o personas beneficiarias de subvenciones relacionadas con los 'Planes Territoriales para la Sostenibilidad Turística en el Destino', o confirmación por parte de la administración de que los trabajos contratados relacionados con los 'Planes Territoriales para la Sostenibilidad Turística en el Destino' han sido realizados, o la entrega de certificados de finalización de trabajos relacionados con los 'Planes Territoriales para la Sostenibilidad Turística en el Destino', para un número acumulado total de 4.200 acciones. Para la COM: ok."

11.- 2026ko otsailaren 10ean, Turismoaren Konferentzia Sektorialak erabaki zuen Jasangarritasun Turistikoko Planen jatorrizko ebazpenak aldatzea, aipatutako eranskinera egokitzeko. Ebazpen hauek 2026ko martxoaren 5eko BOEn argitaratu ziren.

Hala, 2026ko martxoaren 5eko BOEn argitaratu zen Turismoaren Estatu Idazkaritzaren 2026ko otsailaren 24ko Ebazpena, Turismoaren Konferentzia Sektorialaren 2023ko maiatzaren 9ko Erabakiaren aldaketa argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 14. osagaiaren 1. inbertsioaren esparruan toki-erakundeek inbertsio-jarduketak finantzatzera bideratutako kreditua banatzeko irizpideak ezartzen dira, bai eta kreditu horren ondoriozko banaketa ere autonomia-erkidegoentzat.

12- Egindako aldaketen artean, justifikazio-epari buruzkoa nabarmentzen da. Horietan, kontuak emateari dagokionez, honako hauek ezartzen dira:

«Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren ondorioetarako CID 221 betetzen dela egiaztatu ondoren, eta Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 86.2 artikulua zuzentzeko apartatuan jasotako baldintzetan, autonomia-erkidegoek jasotako funtsen erabilerari buruzko azken kontu-emate bat aurkeztu beharko dute, globala eta bateratua, mugarri eta helburuen betetze-mailaren, neurriaren benetako kostuaren eta aplikatutako kontrol-mekanismoen jarraipena egiteko, aplikatzekoak diren nazioko eta Europar Batasuneko kontrolak alde batera utzi gabe».

Artikulu horrek honako hau ezartzen du:

"Ekitaldi ekonomiko amaitu ondoren, eta beranduenez hurrengo ekitaldiko martxoaren 31n, autonomia-erkidegoek ekitaldiaren gauzate-egoera bat bidaliko diote dagokion ministerio-sailari, urtean egindako kreditu-konpromisoen, aitortutako



obligazioen eta ordainketen guztizko zenbatekoak adierazita, funtsen transferentziak egin ziren Estatuko Gastuen Aurrekontuko aurrekontu-aplikazio bakoitzaren arabera zehaztuta. Informazioa Konferentzia Sektorialari jakinaraziko zaio, eta kontuan hartuko da funtsak banatzeko erabakiak hartzerakoan".

Justifikazioaren arloan egindako aldaketak kontuan hartuta, eta laguntzen onuradun diren toki-erakundeek justifikazio-epe egokia izan dezaten, funtsak itzultzeko egoerek ekar ditzaketen akatsak edo akatsak saihesteko, bai eta Eusko Jaurlaritzan turismoaren arloan eskumena duen sailak horiek berrikusteko, beharrezko errekerimenduak egiteko eta justifikazio-kontua MINTURi egiteko nahikoa denbora izan dezan ere, ezinbestekoa da hitzarmenak aldatzea, errealitate berrira egokitzeko. Horregatik guztiagatik, hitzarmenak aldatu behar dira, erakunde onuradunek epe egokia izan dezaten Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan jasotako justifikazioa egiteko, 2026ko ekainaren 30eko 221. mugarria justifikatu ondoren.

Aurreko guztiagatik, alderdiek hitzarmena aldatzeko gehigarri hau sinatzea erabaki dute. Klausula hauek arautuko dute:

## KLAUSULAK

### LEHENENGOA.- Xedea

Gehigarri honen xedea da Gobernu Kontseiluak 2023ko urriaren 31n onartutako hitzarmenaren 12. klausularen 1. apartatua eta 18. klausula aldatzea. Hitzarmen hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bidez) eta eta Bermeoko Udalak sinatu zuten, 2023ko Euskadiko Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Plana osatzen duten helmugako turismo-jasangarritasuneko planak gauzatzeko, Europar Batasunaren NEXT GENERATION EU funtsek finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan.

### BIGARRENA.- Aldatutako klausulak

2023ko urriaren 31ko Gobernu Kontseiluak onartutako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bidez) eta Euskadiko Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planak osatzen dituzten Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planak gauzatzeko erakunde onuradunen artean sinatutako hitzarmen tipoaren 12. klausularen 1. apartatua eta 18. klausula aldatzea. Hitzarmen horiek 2023ko deialdi eta urtekoei dagozkie, eta Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2023ko maiatzaren 22ko Ebazpenean jasota daude. Ebazpen horren bidez, Turismoko Konferentzia Sektorialaren 2023ko maiatzaren 9ko Erabakia argitaratzen da, zeinaren bidez finkatzen baitira toki-erakundeek 14. osagaiaren 1. inbertsioaren esparruan inbertsio-jarduketak finantzatzen bideratutako kreditua banatzeko irizpideak eta kreditu horren ondoriozko banaketa autonomia-erkidegoentzat.

a) 12. klausularen 1. apartatua aldatzea, "Justifikatzeko epea eta modua" izenpetuta, eta honela idatzita uztea:

«Bermeoko Udalak, Plana gauzatu ondoren eta 2026ko ekainaren 30eko mugarria justifikatuta, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean



aurreikusitakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Turismo Zuzendaritzan justifikatuko du jasotako dirulaguntza, gehienez ere 3 hilabeteko epean – 2026ko irailaren 30era arte –, ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduketa-memoria bat eta memoria ekonomiko bat aurkeztuta, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 63. artikuluan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta. Memoria horrek honako dokumentazio hau jasoko du:  
(...)

Salbuespen gisa, dirulaguntzaren justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatzea onartu ahal izango da, gehienez ere epearen erdia, betiere hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie eta luzapen hori behar bezala justifikatzen duten inguruabarrak badaude. Luzapen horrek ez ditu kaltetuko autonomia-erkidegoak Turismoko Estatu Idazkaritzaren aurrean bere gain hartutako jarraipen- eta emate-betebeharrak. Eskabidea turismo eta ostalaritza arloan eskumena duen zuzendaritzan aurkeztu beharko da, epea amaitu baino lehen».

**b) 18. klausularen aldaketa, "indarraldia" izenpetua, honela idatzita geratuko dena:**

"1.- Hitzarmen hau 2027ko otsailaren 28ra arte luzatuko da.

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hura luzatzea edo azkentzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 h) artikuluan xedatutakoaren arabera».

**HIRUGARRENA.- Indarraldia.**

Eranskin hau hobetu egingo da, eta alderdiek sinatzen duten unetik aurrera izango ditu ondorioak, eta eranskin honetan ezarritako indarraldia izango du.

Eta, ados daudela adierazteko, eta hitzartutako guztia behar bezala jasota gera dadin, alderdiek eranskin hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, dagozkien egoitzetan eta hitzarmenaren hasieran sinadura elektronikoetan adierazitako egunetan. Dokumentu hau formalizatzeko datatzat azken sinatzailearen data hartuko da.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua

Bermeoko udaleko alkatea

JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ

NADIA NEMEH SHOMALY



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



**5.- 7.3 EXEKUZIO UNITATEAN, 48 ETXEBIZITZA, LOKALAK ETA GARAJEAK ERAIKITZEKO OBRA LIZENTZIAREN IRAUNGITZE ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA ONARTZEA.**

**Xedea**

7.3 Exekuzio Unitatean, 48 etxebizitza, lokalak eta garajeak eraikitzeke obra lizentziaren iraungitze espedientea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa.- 2006ko abenduaren 27an, Inmobiliaria Almike SL enpresak 7.3 exekuzio unitatean (A, B, C, D eta G partzeletan) 48 etxebizitza, lokalak eta garajeak egiteko obra lizentzia eskatu zuen.

Bigarrena.- 2007ko maiatzaren 7an izandako batzarrean, Bermeoko Tokiko Gobernu Batzarrak 7.3 exekuzio unitatean 48 etxebizitza, lokalak eta garajeak egiteko obra lizentzia ematea erabaki zuen.

Hirugarrena.- Gaur egunera arte, obrak ez dira garatu.

2007ko maiatzaren 7ko Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bigarren puntuak honako epe hauek jasotzen zituen:

- Obra egiteko exekuzio epea: 24 hilabete.
- Obra hasteko epea: 2 hilabete.
- Interesdunari egotz dakioken arrazoiren batengatik etenda egon daitekeen epea: hilabete.

**Argudioak**

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 215. Artikuluan adierazten denez, lizentzia ematen duen administrazio ebazpenak berariaz adierazi beharko ditu obrak hasteko, gehienez eteteko eta bukatzeko epeak.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261467772
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04		Datea: 28/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



Ildo beretik, arau horren 216. Artikularen arabera, obrak lizentzian ezarritako epeak urratuz hasi gabe edo amaitu gabe badaude, edo sustatzaileari egotz dakioken arrazoiren batengatik etenda badaude, udalak lizentziaren iraungipena adieraziko du, dagokion administrazio prozedura izapidetu eta interesdunari entzun ondoren, inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe; hala ere, artikulua beraren bigarren atalaren arabera: *Lizentzian jasotako epeak luzatzeko eskaera ere egin daiteke, arrazoiak emanez; eta udalak, bidezkoa de la uste badu, epe hori luzatzea erabaki dezake.*

## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Inmobiliaria Almike SL enpresari, 2007ko maiatzaren 7an izandako batzarrean, Bermeoko Tokiko Gobernu Batzarrak 7.3 exekuzio unitatean 48 etxebizitza, lokalak eta garajeak egiteko obra lizentzia iraungitzat jotzeko espedienteari hasiera ematea.

BIGARRENA.- Interesdunari 15 eguneko alegazio epea ematea, egoki deritzona adieraz dezan.

## 6.- ATALDE 15EAN KOKATUTAKO ERAIKINEAN IGOGAILUA KOTA ORA JAISTEA ONARTZEA.

### Xedea

Atalde 15ean kokatutako eraikinean igogailua kota Ora jaitsti, eta, horrela, irisgarritasun baldintzak hobetzeko obra baimena.

### Aurrekariak

Lehenengoa.- 2024ko abenduaren 30ean, 72311544G andreak Atalde 15an kokatutako eraikinean irisgarritasun baldintzak hobetzeko lanen obra-baimena eskatu zuen, Atalde 15eko Jabe Elkargoaren izenean.



#### Sinadurea eta data



Horretarako, aurkeztutako eskaerarekin batera, Josu Uribarri Etxebarria arkitektoak izenpetutako proiektua aurkeztu zuen (jp21 arkitektura urigintza S.L).

Proiektua dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia aurkeztu da (2024/12/11) eta proiektuan bertan daude;

- Memoria teknikoa eta Planoak.
- Aurrekontua.
- Kalitate kontrolaren plana.
- Segurtasun eta Osasunaren Oinarrizko Azterlana.
- Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.

Aurkeztutako proiektuaren arabera, proiektuan agertzen den kontrataren aurrekontutik aterata, obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua 86.621,43 eurokoa litzateke.

Bigarrena.- 2026ko martxoaren 6an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- Fidantzen gordailu adierazpena espedientean ageri da.

Laugarrena.- 2026ko maiatzaren 21ean, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

## Argudioak

Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2024ko abenduaren 30ean aurkeztu zen proiektua, eta 2026ko martxoaren 6an egin zuen udal arkitektoak txostena. Azken horretan, lehenengoaren helburua honako hau zela adierazi zuen udal arkitektoak:

*“Memoriaren arabera, gauzatuko diren lanak hurrengoak izango dira:*

- 1. Creación de un nuevo embarque al ascensor en el portal a la cota +0,22 m. Para ello será necesario la ejecución de una rampa interior con un 3% de pendiente que conecte los dos niveles interiores del portal (cota +0,10 y cota +0,22), además se ejecutará una rampa exterior a modo de las existentes a ambos lados del portal (salvaremos de este modo los 10 cm.de diferencia entre el exterior y el interior).*
- 2. Ampliación del recorrido del ascensor hasta la planta bajo cubierta de camarotes y creación de una parada en esta planta.*



3. *Modificación de la anchura de paso de las puertas de embarque al ascensor en plantas altas, pasando estas a tener un paso libre de 80 cm. con puertas automáticas de recogida lateral.*

Bigarrena.- 2026ko martxoaren 6an, gainera, udal arkitektoak honako proposamena egin zuen:

### **“PROPOSAMENA**

*Lizentzia eskatzen den obrak ez ditu eraikinaren eta eremuaren eraikuntza, parametroak aldatzen, eta irisgarritasuna hobetzea du helburu.*

*Proiektua bat dator aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin, beraz oker edo hutsik ezean, hirigintza ikuspuntutik ez legoke eragozpenik eskatutako lanak baimentzeko. Nolanahi ere, eskatutako lanak gauzatzeko, ondorengo baldintzak eduki beharko dira kontuan:*

*Baldintza partikularrak*

*- Obrak hasi aurretik, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:*

*1. Obra zuzendaritzaren izendapena.*

*2. 531,61€ko fidantza jarriko da hondakinak egoki kudeatuko direnaren berme gisa (%120).*

*3. 1.000,00 euroko abala jarri beharko da, lanek irauten duten bitartean gerta daitezkeen kalteen konponketa bermatzeko.*

*- Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta zortzi (8) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan.*

*- Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.*

*- 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispn-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza*



**Sinadurea eta data**



zein den adieraziko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du.

- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.

- Bermatu egingo da ezkaratza kanpoko maila berean egotea, eta horrela ez bada, neurriak hartuko dira irisgarritasun baldintzak betetzeko. Ezkaratzeko atearen igarotze-tartearen gutxieneko zabalera 0,90mkoa izango da; bi orriko ateak erabiltzen direnean, normalean irekitzen denak 0,90mko zabalera libre bat utziko du

- Kanpoaldeko arrapala gauzatzeko eremu publikoan egun dauden materialak, despiezeak eta ondoko arrapalen neurriak errespetatu beharko dira (1,70 zmko luzera; % 5,88ko malda) haien jarraitasuna mantenduz eta erorketak eragin ditzaketen koskak saihestuz. Ez da bestelako soluziorik onartuko.

- Eskailera atalen zabalera librea ez da 0,80 m baino txikiagoa izango

- Eskailera mailen proportzioak bermatu egingo dute erabilera orokorreko eskaileren eskakizunak beteko dituztela.

- Kanpoaldean irisgarritasuna hobetzeko egiten diren lanek (esate baterako, eraikinaren fatxadan igogailua, plataforma jasotzailea, edo arrapala eta abar instalatzeko lanak) ez dituzte inoiz suhiltzaileen eraikinerako sarbide baldintzak murriztuko.

- Igogailura sartzeko solairuetako ateen tope elastikoak izango dituzte, atea ixtean markoaren kontrako inpakturik ia izango ez dela bermatzeko.

- Aginte-mahaia, abitze eta gelditze erreleak ditu, elastikoki muntatuta egongo da, inpaktuen zaraten eta bibrazioen isolamendu egokia izateko.

- Igogailuaren trakzio-sistemak eraikineko egitura-sistemetara ainguratzean, bibrazioak moteltzeko elementuak erabili behar dira. Igogailuaren esparrua, makineria haren barnean dagoenean, instalazio-esparru bat dela joko da isolamendu akustikoari dagokionez. Makineria barnean ez dagoenean, igogailu bat eta erabilera-unitate bat



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772

Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



banantzen dituzten elementuek 50 dB(A) > Ra zarata-murrizketaren indizea izan behar dute.

- 21A-113B eraginkortasuneko su-itxalgailuak eta larrialdietarako argiak jarriko dira solairu bakoitzean.

- Bermeoko HAPOaren IV. Tituluko lehenengo kapituluko eraikuntzako baldintza orokorren zehaztapenak bete beharko dira.

- Eraikinean egingo diren lanetan, EKTari dagokionez, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena. (Besteak beste, DB/SUA, DB/SI, DB/SE, DB/HE, DB/HR,DB/HS).

- Egiturazko elementuek, eraikuntza elementuek eta estaldurek Eraikuntzako Kode Teknikoaren oinarriko Segurtasun dokumentuan ezarritako suarekiko erresistentziak beteko dituzte.

- Igogailuak arau hauek bete behar ditu: igogailu elektrikoa bada, UNE-EN 81- 1: 2001 araua; eta igogailu hidraulikoa bada, UNE-EN 81-2: 2001 araua. Halaber, 1997ko apirilaren 3ko ebazpenean ezarritako baldintzak bete behar dira. Ebazpen horretan ezartzen dira makina gelarik gabeko igogailuak jartzeko zein konpentsazio-neurri bete behar diren.

- 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzekoa.

- 68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena bete beharko da.

- Etxebizitzaren gaineko 3/2015 Legeak, ekainaren 1ekoa, arautzen duena bete beharko da.

- Honako hondakin mota hauek behintzat bereizi behar dira:

o Harrizko hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, harriak eta harkaitza, zeramika (sabai faltsuen igeltsua, moldurak eta panelak izan ezik, haiek gainerako harrizko materialen aprobeixamendua eragozten baitute)



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261467772
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04		Datea: 28/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



*o Hondakin arriskutsuak: amiantoa, pinturak, detergenteak, kolak, erretxinak, gehigarriak, etab.*

*o Hondakin ez arriskutsuak: beira, egurra, hondakin metalikoak, PVCzko elementuak eta beste plastiko batzuk, etab.*

*- Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira:*

*1. Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea, sortu diren aldaketan memoriarekin.*

*2. 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza eta eraispén-hondakinak eta materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.*

*3. Ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau (4) koloretako argazki.*

*4. Kalitate kontrolaren ziurtagiria.*

*5. Igogailuaren instalazioa abian jar daitekeela egiaztatzeko agiria, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailak igorria.*

*Baldintza orokorrak*

*- Obrako hondakinak gai horri buruz indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatuko dira, eta obra-eremua garbi mantenduko da.*

*- Obrak egikaritzeko espazio publikoari eragiten dioten edukiontzia, aldamiok, garabiak edo beste bitarteko osagarri batzuk jarri behar badira, dagokion udal-baimena eskatu beharko da. Dena den, behar bezala seinalatua geratu behar du, balizko arriskuei aurrea hartzeko. Seinaleak segurtasun eta apaintasun aldetik egoera onean mantentzeko ardura eskatzailearena da.*

*- Obra-hondakinak kentzerakoan, ahalegina egingo da eragozpenik ez sortzeko, hautsik*



ez harrotzeko eta harri-pilarik ez sortzeko, eta horretarako beharrezko neurriak hartuko ditu kontratistak.

- Toki altuetatik hondakinak ateratzeko beharrezkoa da edukiontzirainoko hodi bat jartzea, eta hura toldo batekin estaltzea, hondakinak eta hautsa kanpora, bide publikora, atera ez dadin.

- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak. Ezin da obralizentzian jasotzen ez den lanik egin. Onartutako proiektua aldatu nahi izanez gero, alde zuzenetik udalaren baimena eskatu behar da. Horrela egin ezean, hirigintzako arau-haustetzat hartuko da.

- Obrak dirauen bitartean, lizentziaren kopia bat eskuragarri eta ikusgai egongo da obran bertan.

- Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, bai eta obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari alde zuzenetik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio.

- Eraikuntzako Segurtasun eta Osasun Araudian aurreikusitako neurriak hartuko dira. Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

- Obraren kontratistak lan arriskuen ebaluazioa egingo du (arriskuak identifikatu, baloratu, planifikatu, hartu beharrezko neurriak zehaztu, babes neurriak, ... )

- Obrak enpresa bat baino gehiagok edo langile autonomo bat baino gehiagok esku-hartuko badu, exekuzio fasean segurtasunerako eta osasunerako teknikari koordinatzailea kontratatu beharko dute.

- Titularrak erantzukizun zibileko aseguruia izan behar du, istripuak direnerako; edo obrak



egiteko kontratatzen duen pertsonari hori izan dezan eskatuko dio.

- Lizentziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea da, udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.

- Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizentzia eskatzailearen ardura izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.”

Hirugarrena.- Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza Diziiplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.

Gure kasuan, 2024ko abenduaren 30ean egin zen eskaera, eta udal arkitektoaren txostenean adierazten den legez, proiektuak honakoak jasotzen ditu: memoria teknikoa, planoak, aurrekontua, kalitate kontrolaren plana, segurtasun eta osasunaren oinarritzko azterlana eta hondakinak kudeatzeko azterlana.

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia egin aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz



gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko martxoaren 6an egin zuen txostena; urigintza teknikariak, ostera, idatzi honen bitartez.

Laugarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Bosgarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 210.7. artikulua arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.1. artikulua esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamendurekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia emotean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emongo den zehaztuta.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261467772
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04		Datea: 28/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikulua lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehieneko epea: obrak, gehienez ere, 8 hilabetetan exekutatu dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehieneko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 216. artikulua arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, alde aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik.

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Bederatzigarrena.- Horrez gain, lizentzia eman baino lehen honako fidantza hauek aurkeztu beharko dira udalean:

## Fidantzak

### 1. Hondakinen kudeaketa

112/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5. artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (**443,01 €**), eta kostu horren % 120 izango da.



Eraikuntza- eta Eraispn- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza **531,61 €**-koa izango da.

## 2. Fidantza kanpoaldeko arrapala gauzatzeko

Eremu publikoan esku hartzen denez, **1.000,00** euroko fidantza jarri beharko da urbanizazioan kalteak sor daitezkeelako.

Fidantzen gordailu adierazpena espedientean ageri da.

### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2024ko abenduaren 30ean, 72311544G andreak, Atalde 15eko jabe elkartearen izenean, Atalde 15ean kokatutako eraikinean irisgarritasun baldintzak hobetzeko eskatutako lanen obra-baimena **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

#### Baldintza partikularrak

- Obrak hasi aurretik, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Obra zuzendaritzaren izendapena.
2. 531,61€ko fidantza jarriko da hondakinak egoki kudeatuko direnaren berme gisa (%120).
3. 1.000,00 euroko abala jarri beharko da, lanek irauten duten bitartean gerta daitezkeen kalteen konponketa bermatzeko.

- Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta zortzi (8) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan.

- Obren hasiera eta amaiera Udalarari jakinarazi beharko zaizkio.



- 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza zein den adieraziko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Bermatu egingo da ezkaratza kanpoko maila berean egotea, eta horrela ez bada, neurriak hartuko dira irisgarritasun baldintzak betetzeko. Ezkaratzeko atearen igarotze-tartearen gutxieneko zabalera 0,90mkoa izango da; bi orriko ateak erabiltzen direnean, normalean irekitzen denak 0,90mko zabalera libre bat utziko du
- Kanpoaldeko arrapala gauzatzeko eremu publikoan egun dauden materialak, despiezeak eta ondoko arrapalen neurriak errespetatu beharko dira (1,70 zmko luzera; % 5,88ko malda) haien jarraitasuna mantenduz eta erorketak eragin ditzaketen koskak saihestuz. Ez da bestelako soluziorik onartuko.
- Eskailera atalen zabalera librea ez da 0,80 m baino txikiagoa izango
- Eskailera mailen proportzioak bermatu egingo dute erabilera orokorreko eskaileren eskakizunak beteko dituztela.
- Kanpoaldean irisgarritasuna hobetzeko egiten diren lanek (esate baterako, eraikinaren fatxadaren igogailua, plataforma jasotzailea, edo arrapala eta abar instalatzeko lanak) ez dituzte inoiz suhiltzaileen eraikinerako sarbide baldintzak murriztuko.
- Igogailura sartzeko solairuetako ateen tope elastikoak izango dituzte, atea ixtean markoaren kontrako inpakturik ia izango ez dela bermatzeko.
- Aginte-mahaia, abitze eta gelditze erreleak ditu, elastikoki muntatuta egongo da, inpaktuen zaraten eta bibrazioen isolamendu egokia izateko.
- Igogailuaren trakzio-sistemak eraikineko egitura-sistemetara ainguratzean, bibrazioak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
 ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772

Data: 28/05/2026  
 Lekua: Bermeon  
 Erregistro unidea: Erregistro nagusia



moteltzeko elementuak erabili behar dira. Igogailuaren esparrua, makineria haren barnean dagoenean, instalazio-esparru bat dela joko da isolamendu akustikoari dagokionez. Makineria barnean ez dagoenean, igogailu bat eta erabilera-unitate bat banantzen dituzten elementuek 50 dB(A) > Ra zarata-murrizketaren indizea izan behar dute.

- 21A-113B eraginkortasuneko su-itxalgailuak eta larrialdietarako argiak jarriko dira solairu bakoitzean.

- Bermeoko HAPOaren IV. Tituluko lehenengo kapituluko eraikuntzako baldintza orokorren zehaztapenak bete beharko dira.

- Eraikinean egingo diren lanetan, EKTari dagokionez, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena. (Besteak beste, DB/SUA, DB/SI, DB/SE, DB/HE, DB/HR, DB/HS).

- Egiturazko elementuek, eraikuntza elementuek eta estaldurek Eraikuntzako Kode Teknikoaren oinarritzko Segurtasun dokumentuan ezarritako suarekiko erresistentziak beteko dituzte.

- Igogailuak arau hauek bete behar ditu: igogailu elektrikoa bada, UNE-EN 81- 1: 2001 araua; eta igogailu hidraulikoa bada, UNE-EN 81-2: 2001 araua. Halaber, 1997ko apirilaren 3ko ebazpenean ezarritako baldintzak bete behar dira. Ebazpen horretan ezartzen dira makina gelarik gabeko igogailuak jartzeko zein konpentsazio-neurri bete behar diren.

- 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzekoa.

- 68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena bete beharko da.

- Etxebizitzaren gaineko 3/2015 Legeak, ekainaren 1ekoa, arautzen duena bete beharko da.

- Honako hondakin mota hauek behintzat bereizi behar dira:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



o Harrizko hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, harriak eta harkaitza, zeramika (sabai faltsuen igeltsua, moldurak eta panelak izan ezik, haiek gainerako harrizko materialen aprobetxamendua eragozten baitute)

o Hondakin arriskutsuak: amiantoa, pinturak, detergenteak, kolak, erretxinak, gehigarriak, etab.

o Hondakin ez arriskutsuak: beira, egurra, hondakin metalikoak, PVCzko elementuak eta beste plastiko batzuk, etab.

- Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira:

1. Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea, sortu diren aldaketen memoriarekin.

2. 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza eta eraispén-hondakinak eta materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

3. Ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau (4) koloretako argazki.

4. Kalitate kontrolaren ziurtagiria.

5. Igogailuaren instalazioa abian jar daitekeela egiaztatzeko agiria, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailak igorria.

Baldintza orokorrak

- Obrako hondakinak gai horri buruz indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatuko dira, eta obra-eremua garbi mantenduko da.

- Obrak egikaritzeko espazio publikoari eragiten dioten edukiontzia, aldamiok, garabiak edo beste bitarteko osagarri batzuk jarri behar badira, dagokion udal-baimena eskatu beharko da. Dena den, behar bezala seinalatua geratu behar du, balizko arriskuei aurrea



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261467772
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04		Datea: 28/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



hartzeko. Seinaleak segurtasun eta apaintasun aldetik egoera onean mantentzeko ardura eskatzailearena da.

- Obra-hondakinak kentzerakoan, ahalegina egingo da eragozpenik ez sortzeko, hautsik ez harrotzeko eta harri-pilarik ez sortzeko, eta horretarako beharrezko neurriak hartuko ditu kontratistak.

- Toki altuetatik hondakinak ateratzeko beharrezkoa da edukiontzirainoko hodi bat jartzea, eta hura toldo batekin estaltzea, hondakinak eta hautsa kanpora, bide publikora, atera ez dadin.

- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak. Ezin da obra-lizentzian jasotzen ez den lanik egin. Onartutako proiektua aldatu nahi izanez gero, alde zurretik udalaren baimena eskatu behar da. Horrela egin ezean, hirigintzako arau-haustetzat hartuko da.

- Obrak dirauen bitartean, lizentziaren kopia bat eskuragarri eta ikusgai egongo da obran bertan.

- Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, bai eta obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari alde zurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio.

- Eraikuntzako Segurtasun eta Osasun Araudian aurreikusitako neurriak hartuko dira. Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

- Obraren kontratistak lan arriskuen ebaluazioa egingo du (arriskuak identifikatu, baloratu, planifikatu, hartu beharreko neurriak zehaztu, babes neurriak, ... )

- Obrak enpresa bat baino gehiagok edo langile autonomo bat baino gehiagok esku-



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



hartuko badu, exekuzio fasean segurtasunerako eta osasunerako teknikari koordinatzailea kontratatu beharko dute.

- Titularrak erantzukizun zibileko aseguruia izan behar du, istripuak direnerako; edo obrak egiteko kontratatzen duen pertsonari hori izan dezan eskatuko dio.

- Lizenziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea da, udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.

- Lizenziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizenzia eskatzailearen ardura izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.

**HIRUGARRENA.**- Aurkeztutako proiektuaren arabera, proiektuan agertzen den kontrataren aurrekontutik aterata, obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua 86.621,43 eurokoa litzateke (85.440,17 euro hondakinen kudeaketa, segurtasuna eta osasuna eta kalitate kontrola kontuan izan gabe).

**LAUGARRENA.**- Lizenzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun eksklusibopean.

**BOSGARRENA.**- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizenziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

**SEIGARRENA.**- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributua likidatzeko.

**ZAZPIGARRENA.**- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekursoak adieraziz.

## 7.- 21.2 UNIDADEKO 8 ETA 11 PARTZELETAN, OBRA LIZENTZIA ONARTZEA.

### Xedea

E.A. 21.2 areako 8 eta 11 partzeletan 15 etxebizitza eraikitze obra baimen-eskaera.



#### Sinadurea eta data



## Aurrekariak

Lehenengoa.- 2023ko abuztuaren 3an, 30605783M NAN zenbakidun andreak, Construcciones Olabarri SL enpresaren izenean obra baimena eskatu zuen 21.2 areako 8 eta 11 partzeletan 15 etxebizitza, garaje kolektiboa eta trastelekuak eraikitzeko. Horretarako, Hiria Arkitektura Estudioaren Oinarrizko proiektua aurkeztu zuen.

Proiektua zegokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe aurkeztu zen, hala ere, bertan zegoen "Suteetatik babesteko segurtasuna" oinarrizko agiriaren justifikazioa (CTE-DB-SI), "Erabilera Segurtasuna eta Irisgarritasuna" oinarrizko agiriaren justifikazioa (CTE-DB-SUA), apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren justifikazioa (hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen), Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxienezko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren justifikazioa, Bermeoko HAPOaren ordenantzen justifikazioa, eta Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.

Aurkeztutako proiektuaren arabera, obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua 1.978.542,00 eurokoa aurreikusten zen (hondakinaren kudeaketarako, kalitatea kontrolerako eta segurtasuna eta osasuna zaintzeko partidak kenduta 1.922.779,75 euro).

Bigarrena.- 2024ko martxoaren 11n, udal arkitektoak txostena egin zuen, proiektuan hainbat gauza zuzendu behar zirela esanez.

Hirugarrena.- 2024ko martxoaren 25ean, Urigintza, Obra eta Ingurumen saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Laugarrena.- 2024ko martxoaren 25ean, 2024 000001379 Alkatetza Dekretuaren bidez lizentzia ezeztatu zen.

Bosgarrena.- 2024ko abenduaren 9an, 30605783M NAN zenbakidun andreak, Construcciones Olabarri SL enpresaren izenean berriz obra baimena eskatu zuen 21.2 areako 8 eta 11 partzeletan 15 etxebizitza, garaje kolektiboa eta trastelekuak eraikitzeko.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



Horretarako, Hiria Arkitektura Estudioak 2024ko urrian egindako Oinarrizko proiektua aurkeztu zuen.

Proiektua zegokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe aurkeztu zen, hala ere, bertan zegoen "Suteetatik babesteko segurtasuna" oinarrizko agiriaren justifikazioa (CTE-DB-SI), "Erabilera Segurtasuna eta Irisgarritasuna" oinarrizko agiriaren justifikazioa (CTE-DB-SUA), apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren justifikazioa (hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen), Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren justifikazioa, Bermeoko HAPOaren ordenantzen justifikazioa, eta Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.

Seigarrena.- Aurkeztutako proiektuaren arabera, obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua 2.034.028,72 eurokoa aurreikusten zen (hondakinen kudeaketarako, kalitatea kontrolerako eta segurtasuna eta osasuna zaintzeko partidak kenduta 1.878.275,02 euro).

Zazpigarrena.- 2024ko abenduaren 13an, Urigintza, Obra eta Ingurumen saileko administrazio orokorreko teknikariak txostena egin zuen.

Zortzigarrena.- 2025eko urtarrilaren 13an, 30605783M NAN zenbakidun andreak, Construcciones Olabari SL enpresaren izenean obra baimena eskatu zuen 21.2 areako 8 eta 11 partzeletan 15 etxebizitza, garaje kolektiboa eta trastelekuak eraikitzeko. Horretarako, Hiria Arkitektura Estudioak 2024ko urrian egindako Oinarrizko proiektua berriz aurkeztu zuen.

Bederatzigarrena.- 2026ko urtarrilaren 26an, udal arkitektoak kontrako txostena egin zuen.

Hamargarrena.- 2026ko urtarrilaren 26an, 2026 0344 Alkatetza Dekretuaren bidez eskatutako obra lizentzia ukatu zen.

Hamaikagarrena.- 2026ko otsailaren 18an, 30605783M NAN zenbakidun andreak,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



Construcciones Olabbarri SL enpresaren izenean oinarrizko proiektuaren zuzenketa aurkeztu zuen.

Hamabigarrena.- 2026ko maiatzaren 14an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hamahirugarrena.- 2026ko maiatzaren 18an, 30605783M NAN zenbakidun andreak, Construcciones Olabbarri SL enpresaren izenean, fidantzaren gordailua eta Ingurumena Kudeatzeko eta Ikuskatzeko Europar Batasuneko Sistemaren Erregistroan (EMAS) duen inskripzioa aurkeztu zituen. Fidantzaren gordailu adierazpena espedientearen ageri da.

Hamalagarrena.- 2026ko maiatzaren 21ean, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

### Argudioak

Lehenengoa.- Udal teknikarien txostenak ikusirik, eta aurkeztutako oinarrizko proiektuaren azken zuzenketa kontuan izanik, hura bat dator aplikagarria den hirigintza araudiarekin; beraz, ez legoke eragozpenik eskatutako lanak baimentzeko.

Era berean, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 eta 210 artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3 ta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoen araudiarekin bat dator.

Bigarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 30605783M NAN zenbakidun andreak, Construcciones Olabbarri SL enpresaren izenean 21.2 areako 8 eta 11 partzeletan 15 etxebizitza, garaje kolektiboa eta



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261467772
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04		Datea: 28/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidea: Erregistro nagusia



trastelekuak eraikitzeko eskatutako obra lizentzia ematea **onartzea**.

**BIGARRENA**- Lizentziaren eraginkortasuna udal arkitektoaren txostenean jasotzen diren hauetara baldintzatzea:

- Exekuzio proiektuan derrigor eginbeharrekoak:
  - Obra hasi aurretik, dagokion elkargoak ikus-onetsitako exekuzio-proiektua aurkeztu beharko da Udalean, eta gutxienez honako hauek jaso beharko ditu:
    - EKTren justifikazio-memoria
    - Baldintzen plegua
    - Segurtasunari eta osasunari buruzko azterlana
    - Kalitatea Kontrolatzeko Plana
    - Azterketa geoteknikoa
    - Obraren azterketa akustikoa
    - Proiektuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria
    - Telekomunikazio-azpiegitura komunen proiektua
  - Partzelaren itxiturak sekula ere ezingo dira izan 2,50 m baino handiagoak.
  - Atarietako ateez zokaloa izan behar dute, 68/2000 Dekretua betetzeko, eta, aldi berean zati gardenen ehunekoa bete behar dute 80/2022 Dekretuak dioen moduan. Exekuzio proiektuan justifikatu beharko dira bi dekretuen esanak betetzen direla.
  - 1 atariko beheko solairuko C etxebizitzan ezingo da sukaldia itxi (80/2022 Dekretuak ezarritako gutxienerako azalera beteko ez lukeelako) eta, ondorioz, egongela-jangela-sukaldia espazio bakarra izango da, dekretuaren gutxienerako neurriak bai gainditzen dituen.
  - Lehenengo solairuko 1. atariko A etxebizitzan eta 2. atariko B etxebizitzan egongela-jangela-sukalde guneak espazio bateratuak izango dira eta ezingo da zatikatu sukaldia egongela-jangela gunetik, bestela egongela-jangelak ez luke beteko gutxienerako azalera (korridore zatia hartu baita justifikatzeko orduan)
  - Hondakin-biltegia eta elektrizitate-lokalen arrisku berezi maila adieraztea falta da.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261467772
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04		Datea: 28/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



- Kontuan izan beharko da erdisotoko etxebizitzaren okupazioa sestra azpikoa dela ebakuazioa kalkulatzeko.
  - Aparkaleku-plaza bat erreserbatu beharko da mugikortasun urria duten pertsonentzat, 68/2000 Dekretuak dioen moduan.
  - Memoriako atal desberdinetako informazioak bat etorri beharko du; bestalde, memoria eta planoak ere bat etorri beharko dira. Beraz, zuzendu beharko dira dauden desadostasunak eta topatutako akatsak eta okerrak zuzendu. Adibidez, kode teknikoaren DB SI 3 atalean esaten da eskailerek metro bateko zabalera izango dutela eta planoetan eta DB SUA 1 atala justifikatzean 1,10 metro zabalera izango dutela esaten da.
  - Obra hasi aurretik:
    - Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 44.2. artikuluan arabera, 6 hilabete baino gehiago iraungo duten obren kasuan, beharrezkoa izango da eragin akustikoari buruzko azterlana egitea, neurri zuzentzaile egokiak definitzeko.

2016ko uztailaren 19an BAOn argitaratutako Zaraten eta dardaren aurkako babeserako ordenantzako 14. artikuluan ere ezartzen da 6 hilabetetik gorako iraupeneko obretan soinu-inpaktuaren azterlana egin beharko dela.

  - Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta lizentzia emateko tasaren likidazioa egitea, behar den moduan eta epean ordaindu beharko dena, baita Hondakinen Kudeaketako abala eratzea ere.
- Zergaren likidazioa behin-behinekoa da, eta eskatzaileak obrak amaitu behar ditu. Horretarako, obren amaierako ziurtagiria aurkeztu behar du, obren zuzendari teknikoak idatzitako agiriak, bere elkargo profesionalak ikus-onetsitakoak, behin betiko likidazioa egiteko.
- Sustatzaileak obraren zuzendaritza fakultatiboaren izendapena jakinaraziko dio Udalari, harekin harremanetan jartzeko datuekin batera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

Sinadurea eta data	
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04	DOCUMENTO: 20261467772 Data: 28/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



- Zuinketa-akta eta obraren hasiera eskatu beharko dira. Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.
- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarriko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.
- Eraikuntza lanetan aldamioa, edota garabia jartzea beharrezkoa balitz, aurretik udalari baimena eskatuko zaio, dagokion dokumentazioa aurkeztuz.
- EKTari dagokionez, martxoaren 17ko 314/2006 dekretua bete beharko da.
- Irisgarritasunari dagokionez, EKTk, 68/2000 Dekretuak eta TMA/851/2021 ministro-agindua jasotzen dutena bete beharko da.
- Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretua bete beharko da.
- Jabari publikoa okupatuz gero, hau ez da lizentzia honen itzalpean geratuko eta, beraz, dagokion lizentzia eskatu beharko da, modu independentean.
- Lizentzia ematen da, salbu eta jabetza eskubidea eta hirugarren baten kalterik gabe. Ezin izango da alegatu onuradunek beren jarduerak gauzatzean izan dezaketen erantzukizun zibila edo penala baztertzeko edo gutxitzeko.
- Udalari jakinarazi beharko zaio obra lizentziaren titularitatean gertatzen den aldaketa oro, lehengo titularrak zein berriak sinatutako eskabide baten bidez. Titular berriak agiri horretan espresuki hartuko ditu bere gain lizentziaren ondoriozko karga guztiak. Eskritura publikoan agertzen badira, titular berriak formalitate berberekin hartu beharko ditu bere gain.



**Sinadurea eta data**



- Urbanizazioko altzariak, kale-argiak eta urbanizazioa osatzen duten beste elementuak ere udal sailekin batera erabakiko dira, azken finean, udalak bere gain hartuko baititu horien mantenua.

• Obra dagoen bitartean:

- Interesatuak udaleko agintari eta funtzionario eskudunen eskura proiektuaren ale bat izan beharko du, behar bezala zigilatuta eta onartuta.

- Obrak, lizentzia eraginkorra den egunetik hasi eta gehienez ere sei (6) hilabeteko epean hasi beharko dira. Era berean, obrak hasi eta hogeita zortzi (28) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, obrak geldiarazteko epeak ezin izango du hiru hilabete baino gehiago iraun.

Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.

Epe horiek betetzen ez badira, lizentzia iraungitzat eta ondoriorik gabe deklaratu da, eta, aldi berean, obrak dauden egoeran geldiarazteko betebeharra izango du, zehapena ohartarazita, salbu eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko behar-beharrezkoak diren lanei dagokienez, horiek Udalak gainbegiratuta egingo baitira.

Lizentziaren titularrak, bi epeetariko edozein amaitu baino hilabete lehenago gutxienez, epeak luzatu ahal izango ditu, atzerapenaren arrazoiak behar bezala bidezkotzen dituen eskabidea aurkeztuz.

Hala ere, luzapen hau ezinbesteko arrazoiengatik sortutako atzerapenen kalterik gabe emango da. Atzerapen horiek, nolana ere, behar bezala arrazoitu beharko dira idatziz Udalaren aurrean.

- Obrak irauten duen bitartean, Zaratzen eta dardaren aurkako babeserako ordenantza bete beharko da, beraz, bertan ezarritako ordutegiak eta soinu mailak bermatu beharko dira.



- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Obra baimena aurkeztutako oinarritzko proiektu zuzenduan (2026ko otsailaren 18an aurkeztutakoa) oinarritzen da. Proiektuaren aldaketarik balego, Udalari aldaketa horien egokitasuna zuzena den ala ez adieraztea eskatu beharko zaio. Hala egin ezean, obra baimenera egokitzen ez diren lanak ezkutuko jarduketatzat hartuko dira.
- Etxebizitza eraikin berriak definitzen dituen proiektuak Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko eraikuntza ordenantzen xedapenak errespetatu beharko ditu.
- Lerrokadurak errespetatuko dira.
- Eraikigarritasuna ezin izango da gainditu.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.
- Baimena indargabetu egingo da bere menpeko baldintzak betetzen ez badira, eta baliogabetu egingo da haren emakida eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean edo, izan balira, ukatzea justifikatuko zuketenean beste batzuk gertatzen direnean.
- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.
- Lizenziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan dauden datuen benetakotasunaren erantzulea, baita obretan zehar sor daitezkeen gorabeheren erantzulea ere. Kasu horretan, Udalari aldeztu aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera eta intzidentzia horien erantzuletzat joko da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko behar diren segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da, babes-biserak, olanak eta abar jarriz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.

Lizentziaren titularra izango da obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea, eta ezin izango da udal baimena erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.

- Lizentziaren titularra izango da obrak direla-eta udal bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.
- Obrak dirauen bitartean, obraren eraginpean dauden kaleak garbi mantendu beharko dira. Horretarako partzelaren barruan hartuko dira neurri guztiak.
- Instalazio obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira:
  - Obrak amaitutakoan, horren berri eman beharko zaio Bermeoko Udalari, honako agiri hauek aurkeztuz:
    - o Obra amaierako ziurtagiria bisatua
    - o Ikus-onetsitako obraren likidazioa
    - o Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne, obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.
    - o Kalitate-kontrolaren ziurtagiria
    - o Hondakinen kudeaketari buruzko azken azterlana eta egiaztapena erakunde akreditatuak eginikoa
    - o Eraikin berriaren eta urbanizazioaren azken egoeraren argazkiak
    - o OBRA BERRIAREN adierazpena
    - o Eraikinaren alta aitortpena hiri ondasunak zergapetzeko



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- Instalatzaileek emandako ziurtagiriak, instalazioaren egokitasunarena, Industria ordezkariak abalatuak:
    - Igogailuak
    - Hornidurako barruko ura
    - Energia
    - Gasa, egonez gero
    - Telekomunikazioak
    - Instalazio termikoak
    - Aireztapen instalazioa
  - ITC proiektua industria ordezkarietan aurkeztu izanaren ziurtagiria
  - Igogailuen mantenu kontratua
  - Igogailuak abiaraztearen ziurtagiria
  - Aireztapen sistema abiaraztearen ziurtagiria
  - Udal kartografia eguneratzeko plano digitala aurkeztua
- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan eta urbanizazio obretan sortutako eraikuntza- eta eraispentxostekin eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.
- 1.– Obra handietan sortutako txostekin behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txostena aurkeztu beharko du eraikuntza-txostekin eta –materialen txostek. Txosten hori 112/2012 Dekretuaren III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraituz egin behar da, eta ingurumen-organismoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarren ezartzen dena.
- 2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:
- a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261467772
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04		Fecha: 28/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



behar da edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraituz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispematerialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitortpena.

**HIRUGARRENA.-** Aurkeztutako proiektuaren arabera, obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua 2.034.028,72 eurokoa aurreikusten zen (hondakinen kudeaketarako, kalitatea kontrolerako eta segurtasuna eta osasuna zaintzeko partidak kenduta 1.878.275,02 euro).

**LAUGARRENA.-** Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun eksklusibopean.

**BOSGARRENA.-** Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

**SEIGARRENA.-** Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuoak likidatzeko.

**ZAZPIGARRENA.-** Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsuak adieraziz.

## 8.- ARANE AUZOKO 33. ETXEBIZITZA ERREFORMA ONARTZEA.

**Xedea**

45



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772

Fecha: 28/05/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



Arene Auzoko 33. zenbakian dagoen familia bakarreko etxebizitza eraberritzeko obra baimenaren eskaera.

### Aurrekariak

Lehenengoa.- 2024ko otsailaren 6an, 30680791X NAN zenbakidun jaunak, 30648673T jaunaren izenean, udal erregistroan aurkeztu zuen Bermeoko Arene auzoko 33. zenbakian dagoen familia bakarreko etxebizitza eraberritzeko obra-lizentziaren eskaera.

Eskaerarekin batera, 30680791X NAN zenbakidun arkitektoak izenpetutako Exekuzio proiektua aurkeztu zuen. Proiektua dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia aurkeztu zen (2023-11-30) eta proiektuan bertan daude:

- Memoria teknikoa.
- Planoak.
- Aurrekontua.
- Segurtasun eta Osasunaren Oinarrizko Azterlana.
- Kalitate Kontrolaren Plana.
- Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.

Aurkeztutako proiektuaren arabera, 165.081,05 eurokoa izango da obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua (segurtasun eta osasun partida, hondakinen kudeaketa partida eta kalitate kontrolaren partida barne).

Bigarrena.- 2024ko martxoaren 19an, Bizkaiko Foru Aldundiak bere txostena igorri zion Bermeoko Udalari, esanez, proiektua onargarria dela Bizkaiko Errepideei buruzko urriaren 20ko 5/2021 Foru Arauaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 112/2013 Foru Dekretuaren arabera, betiere, baldintzapean.

Hirugarrena.- 2024ko urtarrilaren 24an, Uraren Euskal Agentziak bere txostena igorri zion Bermeoko Udalari, esanez, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, indarreko legerian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu dela, betiere, baldintzapean.

Laugarrena.- 2025ko urriaren 4an, E.A.U andreak , 30648673T NAN zenbakidun jaunaren izenean, udal erregistroan eskaera orria aurkeztu zuen errepidera aldera ematen duen



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



euste horma konpontzeko agiri osagarriak aurkezteko.

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, 2.501,25 eurokoa izango da obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua.

Bosgarrena.- 2026ko martxoaren 6ko udal txosten teknikoan ondorioztatu zen atzealdeko fatxadarako proposatutako baoak ez zetozeela bat Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren (EKZP), 139/2016 Dekretuaren bidez onartutakoaren, 3.3.3.9 artikuluan ezarritakoarekin, eta, ondorioz, espedientearekin jarraitzeko proiektuaren zuzenketa aurkeztu behar zela.

Era berean, aipatutako txostenean adierazi zen beharrezkoa zela argiztapen eta aireztapen baldintzak berriro egokitzea eta justifikatzea, fatxadako baoen aldaketaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren gutxieneko bizigarritasun baldintzak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren arabera.

Seigarrena.- 2026ko maiatzaren 6an, interesdunak Exekuzio Proiektuaren dokumentazio osagarria aurkeztu zuen, 30680791X NAN dun arkitektoak idatzia. Dokumentazio horretan atzealdeko fatxadaren baoen konposizio berria planteatzen da, 80/2022 Dekretuaren betetze-justifikazioa jasotzen da, eta, horrekin batera, eraikinaren Efizientzia Energetikoaren Ziurtagiria aurkezten da, 2026ko apirilaren 27koa.

Laugarrena.- 2026ko maiatzaren 21ean, udal arkitektoak aldeko txostena egin zuen.

Bosgarrena.- 2026ko maiatzaren 21ean, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

## Argudioak

Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2026ko maiatzaren 6an aurkeztu zen azken dokumentazio zuzendua, eta 2026ko maiatzaren 21ean egin zuen arkitektoak txostena. Hitz gutxitan, aurkeztutako memoriaren arabera, honakoa da proiektuaren helburua:

*“La propiedad requiere de nuestros servicios para realizar una reforma integral del interior de la actual vivienda unifamiliar. La intención, será principalmente, generar un espacio más cómodo tanto a modo de confort térmico como en cuanto a la accesibilidad se refiere.”*

Bigarrena.- 2026ko maiatzaren 21ean, gainera, udal arkitektoak honako proposamena



egin zuen:

#### **"4. Ondorioak eta Proposamenak:**

*Espedientean jasotako dokumentazio osagarria aztertuta, ondorioztatzen da 2026ko martxoaren 6ko udal txosten teknikoan adierazitako gabeziak behar bezala zuzendu direla.*

*Ondorioz:*

- atzealdeko fatxadaren baren proposamen berria bateragarria dela jotzen da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren (EKZP) 3.3.3.9 artikuluekin;*
- behar bezala justifikatzen dela 80/2022 Dekretuak ezarritako gutxieneko bizigarritasun baldintzen betetzea, bereziki argiztapen eta aireztapenari dagokionez;*
- eta espedientea osatzeko beharrezkoa den Efizientzia Energetikoaren Ziurtagiria ere aurkeztu dela.*

*Horrenbestez, eskatutako obra-lizentzia ematearen aldeko txostena ematen da.*

*Nolanahi ere, ondorengo baldintzak bete beharko dira:*

- Obra hasi aurretik:*
- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta lizentzia emateko tasaren likidazioa egitea, behar den moduan eta epean ordaindu beharko dena, baita Hondakinen Kudeaketako abala eratzea ere.*

*Zergaren likidazioa behin-behinekoa da, eta eskatzaileak obrak amaitu behar ditu. Horretarako, obren amaierako ziurtagiria aurkeztu behar du, obren zuzendari teknikoak idatzitako agiriak, bere elkargo profesionalak ikus-onetsitakoak, behin betiko likidazioa egiteko.*
- Sustatzaileak obraren zuzendaritza fakultatiboaren izendapena jakinaraziko dio Udalari, harekin harremanetan jartzeko datuekin batera.*



- *Zuinketa-akta eta obraren hasiera eskatu beharko dira. Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.*
- *112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarriko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.*
- *Eraikuntza lanetan aldamioa, edota garabia jartzea beharrezkoa balitz, aurretik udalari baimena eskatuko zaio, dagokion dokumentazioa aurkeztuz.*
- *EKTari dagokionez, martxoaren 17ko 314/2006 dekretua bete beharko da.*
- *Irisgarritasunari dagokionez, EKTk, 68/2000 Dekretuak eta TMA/851/2021 ministro-aginduak jasotzen dutena bete beharko da.*
- *Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretua bete beharko da.*
- *Jabari publikoa okupatuz gero, hau ez da lizentzia honen itzalpean geratuko eta, beraz, dagokion lizentzia eskatu beharko da, modu independentean.*
- *Lizentzia ematen da, salbu eta jabetza eskubidea eta hirugarren baten kalterik gabe. Ezin izango da alegatu onuradunek beren jarduerak gauzatzean izan dezaketen erantzukizun zibila edo penala baztertzeko edo gutxitzeko.*
- *Udalari jakinarazi beharko zaio obra lizentziaren titularitatean gertatzen den aldaketa oro, lehengo titularrak zein berriak sinatutako eskabide baten bidez. Titular berriak agiri horretan espresuki hartuko ditu bere gain lizentziaren ondoriozko karga guztiak. Eskritura publikoan agertzen badira, titular berriak formalitate berberekin hartu beharko ditu bere gain.*

*Obra dagoen bitartean:*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- *Interesatuak udaleko agintari eta funtzionario eskudunen eskura proiektuaren ale bat izan beharko du, behar bezala zigilatuta eta onartuta.*

*Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.*

*Epe horiek betetzen ez badira, lizentzia iraungitzat eta ondoriorik gabe deklaratu da, eta, aldi berean, obrak dauden egoeran geldiarazteko betebeharra izango du, zehapena ohartarazita, salbu eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko behar-beharrezkoak diren lanei dagokienez, horiek Udalak gainbegiratuta egingo baitira.*

*Lizentziaren titularrak, bi epeetariko edozein amaitu baino hilabete lehenago gutxienez, epeok luzatu ahal izango ditu, atzerapenaren arrazoiak behar bezala bidezkotzen dituen eskabidea aurkeztuz.*

*Hala ere, luzapen hau ezinbesteko arrazoiengatik sortutako atzerapenen kalterik gabe emango da. Atzerapen horiek, nolahi ere, behar bezala arrazoitu beharko dira idatziz Udalaren aurrean.*

- *Obrak irauten duen bitartean, Zaraten eta dardaren aurkako babeserako ordenantza bete beharko da, beraz, bertan ezarritako ordutegiak eta soinu mailak bermatu beharko dira.*
- *Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.*
- *Obra baimena aurkeztutako proiektu zuzenduan oinarritzen da. Proiektuaren aldaketarik balego, Udalari aldaketa horien egokitasuna zuzena den ala ez adieraztea eskatu beharko zaio. Hala egin ezean, obra baimenera egokitzen ez diren lanak ezkutuko jarduketatzat hartuko dira.*
- *Proiektuak Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko eraikuntza ordenantzen xedapenak errespetatu beharko ditu.*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.
  - Baimena indargabetu egingo da bere menpeko baldintzak betetzen ez badira, eta baliogabetu egingo da haren emakida eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean edo, izan balira, ukatzea justifikatuko zuketene beste batzuk gertatzen direnean.
  - Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.
  - Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan dauden datuen benetakotasunaren erantzulea, baita obretan zehar sor daitezkeen gorabeheren erantzulea ere. Kasu horretan, Udalari alde aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera eta intzidentzia horien erantzuletzat joko da.
  - Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko behar diren segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da, babes-biserak, olanak eta abar jarritz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.
- Lizentziaren titularra izango da obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea, eta ezin izango da udal baimena erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.
- Lizentziaren titularra izango da obrak direla-eta udal bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.
  - Obrak dirauen bitartean, obraren eraginpean dauden kaleak garbi mantendu beharko dira. Horretarako partzelaren barruan hartuko dira neurri guztiak.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

## Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU  
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- Instalazio obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira:
- Obrak amaitutakoan, horren berri eman beharko zaio Bermeoko Udalari, honako agiri hauek aurkeztuz:
  - Obra amaierako ziurtagiria bisatua
  - Ikus-onetsitako obraren likidazioa
  - Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne, obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.
  - Kalitate-kontrolaren ziurtagiria
  - Hondakinen kudeaketari buruzko azken azterlana eta egiaztapena erakunde akreditatuak eginikoa
- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan eta urbanizazio obretan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txostena aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori 112/2012 Dekretuaren III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraituz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu

52



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772

Fecha: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



*behar da edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegituta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraituz.*

*b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.*

*c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitortpena.”*

**Hirugarrena.-** Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza Diziiplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarreanean.

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Gure kasuan, espedientean ageri dira, alde batetik, URA Euskal Ur Agentziaren txostena; bestetik, BFAko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren 2024ko



martxoaren 19ko 729 zenbakidun ebazpena.

URA Euskal Ur Agentziaren txostenari dagokionez, honakoa irakur daiteke:

*“Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, indarreko legerian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu da. Horregatik guztiagatik, Uraren Euskal Agentziak erabaki du ebazpenik jaso ez duen arren, horrelako jarduketan izaera kontuan harturik eta, eskaera aurkeztu zuenetik 15 egun balioduneko epea igaro denez, **GORKA MUJIKA REVUELTA-k aitortutako kontserbazio-jarduketa txikiak egiteko aukera duela.**”*

Bestearekin dagokionez, ostera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren 2024ko martxoaren 19ko 729 zenbakidun ebazpenean honakoa irakur daiteke:

*“Bizkaiko Errepideei buruzko urriaren 20ko 5/2021 Foru Arauaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 112/2013 Foru Dekretuaren arabera, jabego eskubidea gordez eta inorenari kalterik egin gabe **bidezkoa da onartzea, ezarritako baldintzak ez betetzeagatik baliorik gabe,** inolako balio eta ondorik gabe geratuko delarik, eska dezakeen Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako funtzionari orori aurkeztu behar izango zaiola jarraiean agertzen diren eta honekin batera dauden baldintzen arabera:*

**LEHENA:** Gutxienezko distantzia:

**BIGARRENA:** Obrak hasteko epea: 8 HILABETE. Obrak hasi ondoren burutzeko epea: 10 HILABETE

**HIRUGARRENA:** Interesatuak baimena irautsi baino lehen eskabide-orria aurkezten badu, lanak burutzeko epearen luzamendua eman ahal izango da; luzamendua ez da izango hasierako epearen erdia baino luzeagoa.

**LAUGARRENA:** Bermea

**BOSTGARRENA:** Honako baimen honek Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoaren sortzapena dakar, jabari publikoaren bakarreko erabilpen eta aprobetxamendu bereziagatik.”

Horrez gain, lizentzia egin aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte,



eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko maiatzaren 21ean egin zuen txostena; baita urigintza teknikariak ere.

Laugarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Bosgarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 210.7. artikulua arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.1. artikulua esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamendurekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia emotean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emongo den zehaztuta.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261467772
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04		Datea: 28/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikulua lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 10 hilabetetan exekutatu dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 216. artikulua arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, alde aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik.

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Bederatzigarrena.- Horrez gain, lizentzia eman baino lehen honako fidantza hauek aurkeztu beharko dira udalean:

## Fidantzak

### 3. Hondakinen kudeaketa

112/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5. artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (**1.469,00 €**), eta kostu horren % 120 izango da.

Eraikuntza- eta Erailpen- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza **1.762,80 €**-koa  
56



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

#### Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



izango da.

Fidantzen gordailu adierazpena espedientean ageri da.

### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2024ko otsailaren 6an, 30680791X NAN zenbakidun jaunak, 30648673T NAN zenbakidun jaunaren izenean Bermeoko Arene auzoko 33. zenbakian dagoen familia bakarreko etxebizitza eraberritzeko aurkeztutako obra-lizentziaren eskaera onartzea, espedientean jaso diren azken zuzenketen (2026ko maiatzaren 6a) arabera.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

Nolanahi ere, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Obra hasi aurretik:
- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta lizentzia emateko tasaren likidazioa egitea, behar den moduan eta epean ordaindu beharko dena, baita Hondakinen Kudeaketako abala eratzea ere.  
  
Zergaren likidazioa behin-behinekoa da, eta eskatzaileak obrak amaitu behar ditu. Horretarako, obraren amaierako ziurtagiria aurkeztu behar du, obraren zuzendari teknikoak idatzitako agiriak, bere elkargo profesionalak ikus-onetsitakoak, behin betiko likidazioa egiteko.
- Sustatzaileak obraren zuzendaritza fakultatiboaren izendapena jakinaraziko dio Udalari, harekin harremanetan jartzeko datuekin batera.
- Zuinketa-akta eta obraren hasiera eskatu beharko dira. Lanak hasi aurretik haien zuinketa egiazta dezaten eskatu beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei.
- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispentzen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



zehazten den fidantza ezarriko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango.

- Eraikuntza lanetan aldamioa, edota garabia jartzea beharrezkoa balitz, aurretik udalari baimena eskatuko zaio, dagokion dokumentazioa aurkeztuz.
- EKTari dagokionez, martxoaren 17ko 314/2006 dekretua bete beharko da.
- Irisgarritasunari dagokionez, EKTk, 68/2000 Dekretuak eta TMA/851/2021 ministro-aginduak jasotzen dutena bete beharko da.
- Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretua bete beharko da.
- Jabari publikoa okupatuz gero, hau ez da lizentzia honen itzalpean geratuko eta, beraz, dagokion lizentzia eskatu beharko da, modu independentean.
- Lizentzia ematen da, salbu eta jabetza eskubidea eta hirugarren baten kalterik gabe. Ezin izango da alegatu onuradunek beren jarduerak gauzatzean izan dezaketen erantzukizun zibila edo penala baztertzeko edo gutxitzeko.
- Udalari jakinarazi beharko zaio obra lizentziaren titularitatean gertatzen den aldaketa oro, lehengo titularrak zein berriak sinatutako eskabide baten bidez. Titular berriak agiri horretan espresuki hartuko ditu bere gain lizentziaren ondoriozko karga guztiak. Eskritura publikoan agertzen badira, titular berriak formalitate berberekin hartu beharko ditu bere gain.

Obra dagoen bitartean:

- Interesatuak udaleko agintari eta funtzionario eskudunen eskura proiektuaren ale bat izan beharko du, behar bezala zigilatuta eta onartuta.

Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.

Epe horiek betetzen ez badira, lizentzia iraungitzat eta ondorioz gabe deklaratu da, eta, aldi berean, obrak dauden egoeran geldiarazteko



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 2026146772
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04		Datea: 28/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



betebeharra izango du, zehapena ohartarazita, salbu eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko behar-beharrezkoak diren lanei dagokienez, horiek Udalak gainbegiratuta egingo baitira.

Lizentziaren titularrak, bi epeetariko edozein amaitu baino hilabete lehenago gutxienez, epeok luzatu ahal izango ditu, atzerapenaren arrazoiak behar bezala bidezkotzen dituen eskabidea aurkeztuz.

Hala ere, luzapen hau ezinbesteko arrazoiengatik sortutako atzerapenen kalterik gabe emango da. Atzerapen horiek, nolahi ere, behar bezala arrazoitu beharko dira idatziz Udalaren aurrean.

- Obrak irauten duen bitartean, Zaraten eta dardaren aurkako babeserako ordenantza bete beharko da, beraz, bertan ezarritako ordutegiak eta soinu mailak bermatu beharko dira.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Obra baimena aurkeztutako proiektu zuzenduan oinarritzen da. Proiektuaren aldaketarik balego, Udalari aldaketa horien egokitasuna zuzena den ala ez adieraztea eskatu beharko zaio. Hala egin ezean, obra baimenera egokitzen ez diren lanak ezkutuko jarduketatzat hartuko dira.
- Proiektuak Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko eraikuntza ordenantzen xedapenak errespetatu beharko ditu.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxienezko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772

Fecha: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- Baimena indargabetu egingo da bere menpeko baldintzak betetzen ez badira, eta baliogabetu egingo da haren emakida eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean edo, izan balira, ukatzea justifikatuko zuketene beste batzuk gertatzen direnean.
  - Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.
  - Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan dauden datuen benetakotasunaren erantzulea, baita obretan zehar sor daitezkeen gorabeheren erantzulea ere. Kasu horretan, Udalari alde aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera eta intzidentzia horien erantzuletzat joko da.
  - Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko behar diren segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da, babes-biserak, olanak eta abar jarriz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.
- Lizentziaren titularra izango da obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea, eta ezin izango da udal baimena erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.
- Lizentziaren titularra izango da obrak direla-eta udal bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.
  - Obrak dirauen bitartean, obraren eraginpean dauden kaleak garbi mantendu beharko dira. Horretarako partzelaren barruan hartuko dira neurri guztiak.
  - Instalazio obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira:
  - Obrak amaitutakoan, horren berri eman beharko zaio Bermeoko Udalari, honako agiri hauek aurkeztuz:
    - o Obra amaierako ziurtagiria bisatua
    - o Ikus-onetsitako obraren likidazioa



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU  
 ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772

Data: 28/05/2026  
 Lekua: Bermeon  
 Erregistro unidatea:  
 Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



o Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne, obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea.

o Kalitate-kontrolaren ziurtagiria

o Hondakinen kudeaketari buruzko azken azterlana eta egiaztapena erakunde akreditatuak eginikoa

- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan eta urbanizazio obretan sortutako eraikuntza- eta eraispn-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txostena aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori 112/2012 Dekretuaren III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraituz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraituz.



**Sinadurea eta data**



b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak edo betelane tarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispematerialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitortpena.

HIRUGARRENA.- URA Euskal Ur Agentziaren txostenean zein BFAko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren 2024ko martxoaren 19ko 729 zenbakidun ebazpenean ezarritako baldintzak bete beharko dira.

LAUGARRENA.- Aurkeztutako proiektuaren arabera, obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua 165.081,05 eurokoa litzateke (160.080,97 euro hondakinen kudeaketa partida, segurtasun eta osasunerako partida eta kalitate kontroleko partida kenduta).

Bestalde, errepidera aldera ematen duen euste horma konpontzeko aurkeztutako dokumentazioaren arabera, 2.501,25 eurokoa izango da obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua.

Guztira, 167.582,30 euro (162.582,22 euro hondakinen kudeaketa partida, segurtasun eta osasunerako partida eta kalitate kontroleko partida kenduta).

BOSGARRENA.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikulua ezarritakoa betez, honakoak izango dira obrekin hasteko, horiek exekutatzeko eta interesdunari egotz dakioken arrazoiren batengatik epea etenda egon daitekeen gehienezko epea:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 10 hilabetetan exekutatuko dira.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIU RTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772
Fecha: 28/05/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unida dea: Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

SEIGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun eksklusibopean.

ZAZPIGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

ZORTZIGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributua likidatzeko.

BEDERATZIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekursoak adieraziz.

## 9.- AROSTEGI 17AN IGOGAILUA JARTZEKO OBRA LIZENTZIAREN IRAUNGITZEA ONARTZEA.

### Xedea

Arostegi kalea 17 zenbakiko eraikinean igogailua jartzeko emandako obra lizentziaren iraungipena.

### Aurrekariak

Lehenengoa.- 2020ko irailaren 30ean, Tokiko Gobernu Batzarrak Arostegi kalea 17ko jabe elkarteari eraikinean igogailua jartzeko obra lizentzia eman zion.

Bigarrena.- 2020ko azaroaren 24an, \*\*\*\*3142S NAN zenbakidunak erabaki horren aurkako birjarpen errekurtoa aurkeztu zuen.

Hirugarrena.- 2020ko abenduaren 22an, Tokiko Gobernu Batzarrak \*\*\*\*3142S NAN zenbakidunak ezarritako birjarpen errekurtoa ezeztatu zuen.

Laugarrena.- 2021eko martxoaren 24an, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261467772
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04		Data: 28/05/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



Zenbakiko Epaitegian aurreko erabakiaren aurkako administrazioarekiko auzi errekurtsua ezarri zen.

Bosgarrena.- 2021eko martxoaren 29an, Arostegi Kalea 17ko jabe elkarteak idatzia aurkeztu zuen udalean administrazioarekiko auzi errekurtsuaren inguruan berri emonaz eta lizentzia ez iraungitzeko eskatuz.

Seigarrena.- 2021eko apirilaren 14an, \*\*\*\*3142S NAN zenbakidunak lizentziaren iraungipena eskatu zuen.

Zazpigarrena.- 2021eko ekainaren 8an, Tokiko Gobernu Batzarrak Arostegi Kalea 17 zenbakiko eraikinean igogailua jartzeko emandako obra lizentzia ez iraungitzea eta haren epea luzatzea onartu zuen:

*“Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta ahobatez erabaki du:*

*LEHENENGOA: Arostegi kalea 17ko jaube alkarteak egindako eskaria baiezte, beraz, obra lizentzia ez iraungitzea eta haren epea luzatzea. Obrak exekutatzeko epea honako hau izango da: administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren inguruko sententzia irmoa jasotzen danetik hasita, sei hilabetekoa, obrak hasteko epea hilabetekoa eta, etenik badago, epea hilabetekoa izango da.*

*BIGARRENA: \*\*. \*\*3.142-S NAN zenbakidun jaunak obra lizentzia iraungitzeko egindako eskaria ezeztatzea.”*

Zortzigarrena.- 2022ko irailaren 26an, Bermeoko Udalak Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1. Zenbakiko Epaitegiko sententzia jaso zuen, \*\*\*\*3142S NAN zenbakidunak ezarritako errekurtsua ezeztatuz.

Bederatzigarrena.- 2022ko urriaren 19an, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1. Zenbakiko Epaitegiko sententziaren aurkako apelazio errekurtsua jarri zuen \*\*\*\*3142S NAN zenbakidunak.

Hamargarrena.- 2024ko abenduaren 11n, Justizia Auzitegi Nagusiko sententzia ebatzi



zen, berriro ere, apelazio errekurtsua ezeztatuz.

Hamaikagarrena.- 2026ko otsailaren 17an, \*\*\*\*3142S NAN zenbakidunak lizentziaren iraungipena eskatu zuen.

Hamabigarrena.- 2026ko martxoaren 3an, Bermeoko Tokiko Gobernu Batzarrak Arostegi 17an igogailua jartzeko obra lizentziaren iraungipen espedientea hastea onartu zuen.

Hamahirugarrena.- 2026ko martxoaren 18an, Juan Erauzkin Lakak, Arostegi 17ko jabe elkartearen presidente legez, alegazioak aurkeztu zituen, non gaiak judizializatuta jarraitzen zuela adierazten zuen.

Hamalauagarrena.- 2026ko martxoaren 27an, Juan Erauzkin Lakak, Arostegi 17ko Jabekideen Erkidegoko lehendakari gisa, Gernikako Auzialdiko Auzitegiko Arlo Zibileko eta Instrukzioko 4. sekzioak emandako epaia aurkeztu zuen, erkidegoaren aurka jarritako demanda zela eta.

Salatzaileak hau eskatu zuen:

- 2020ko urriaren 6an jabeen batzarrean hartutako erabakia deusez deklaratzeko.
- Jabekideen Erkidegoa eraikinaren elementu komunak konpontzera kondenatzea, elementu horiek demandatzaileen jabetzari eragiten baitiote.
- Elementu komunetan demandatzaileen partaidetza kuotak legez kontrakoak direla deklaratzeko, eta, ondorioz, kuota horiek aldatzea.

Epaia salatzaileen eskaerak ezeztatu zituen.

Hamabosgarrena.- 2026ko martxoaren 31n, salatzaileak espediente honetan aurkeztutako administrazio jarduketara, jakinarazpen, alegazio eta errekurtsu guztiak helarazteko eskatu zuen.

Hamaseigarrena.- 2026ko maiatzaren 5ean, entzunaldi epea ireki zen; hala ere, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Hamazazpigarrena.- 2026ko maiatzaren 21ean, urigintza teknikariak erabaki proposamena egin zuen.

## Argudioak

3



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 215. artikuluan adierazten denez, lizentzia ematen duen administrazio ebazpenak berariaz adierazi beharko ditu obrak hasteko, gehienez eteteko eta bukatzeko epeak.

Ilido beretik, arau horren 216. artikulua araberan, obrak lizentzian ezarritako epeak urratuz hasi gabe edo amaitu gabe badaude, edo sustatzaileari egotz dakioken arrazoien batengatik etenda badaude, udalak lizentziaren iraungipena adieraziko du, dagokion administrazio prozedura izapidetu eta interesdunari entzun ondoren, inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe; hala ere, artikulua beraren bigarren atalaren arabera: Lizentzian jasotako epeak luzatzeko eskaera ere egin daiteke, arrazoiak emanez; eta udalak, bidezkoa dela uste badu, epe hori luzatzea erabaki dezake.

Horiek horrela, nahiz eta lizentziaren epeen ez betetzearen ondoriozko iraungitzeak lizentziaren eraginkortasunaren azkentzea ekarri, epea igarotzeak berez ez dakar iraungipen automatikorik; izan ere, horretarako administrazioaren aldetiko deklarazio formala beharrezkoa da, interesdunari entzun ondoren.

Bigarrena.- Gure kasuak lizentzian adierazitako epeen ez betetzean oinarritutako iraungipenaren inguruan ebaztean datza. Hori dela eta, abiapuntu gisa, gogoratu behar da lizentziaren iraungitzeak ez dituela automatikoki eraginak sortzen, baizik eta kasu bakoitzeko inguruabarren haztapena egin ondorengo deklarazio formala beharrezkoa dela.

Ilido horretatik, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak behin eta berriz adierazi du iraungipena zuhurtzia, moderazio eta izaera murriztailearen irizpideekin aplikatu behar dela, eta epea igarotzeaz gain, beharrezkoa dela lizentziaren titularren aldetiko bertan behera uzteko borondate argia. Hala, Auzitegi Gorenaren 1991ko otsailaren 26ko epaiak (EDJ 1991/2096) jasotzen duen bezala:

*"Tercero.- Por consecuencia, "el instituto de la caducidad de las licencias municipales ha de acogerse con cautela" -Sentencia de 20 de mayo de 1985-, aplicándolo "con una moderación acorde con su naturaleza y sus fines" -Sentencia de 20 de mayo de 1985- y con*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

**Sinadurea eta data**  
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04

DOCUMENTO: 20261467772  
Data: 28/05/2026  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



un "sentido estricto" -Sentencia de 2 de enero de 1985-, e incluso con "un riguroso criterio restrictivo" -Sentencia de 10 de abril de 1985- En definitiva, ha de operar con criterios "de flexibilidad, de moderación y restricción" -Sentencia de 10 de mayo de 1985- Con posterioridad a la citada Sentencia de 22 de marzo de 1988, esta misma Sala ha venido declarando en Sentencias de 11 y 31 de marzo y 29 de septiembre de 1989 y 14 de marzo de 1990, que el plazo de caducidad asignado en cada caso no opera drásticamente como plazo de rigurosa caducidad, sacrificando a su automatismo los intereses reales en juego, sino que, por el contrario, requiere una declaración formal recaída en el específico expediente que se siga con plena intervención del interesado y en el que no sólo basta acreditar el transcurso del plazo exigido en cada caso, sino, sobre todo, la inequívoca voluntad de aquel de abandonar su proyecto. Criterios jurisprudenciales que, por otra parte, han sido recogidos en el art. 23 de la Ley de reforma del Régimen Urbanístico, de 25 de julio de 1990, al disponer que "el derecho a edificar se extingue por incumplimiento de los plazos fijados, mediante su declaración formal, en expediente tramitado con audiencia del interesado".

Ildo beretik, jurisprudentzia berriagoak ere azpimarratzen du lizentziaren iraungipenerako inguruabar zehatzak baloratu behar direla, eta jarduera eza ez dela lizentziaren iraungipena ebazteko nahikoa, batez ere titularrari ez dagozkion arrazoiak justifikatzen baldin badute. Honakoa dio Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2017ko abenduaren 28ko epaiak (EDJ 2017/315826):

*"Sobre la caducidad, la jurisprudencia del Tribunal Supremo ha establecido, entre otros criterios, que "la caducidad nunca opera de modo automático" ( STS de 28 de mayo de 1991); y que para su declaración no basta con la simple inactividad del titular sino que será precisa una ponderada valoración de los hechos, ya que no puede producirse "a espaldas de las circunstancias concurrentes y de la forma en que los acontecimientos sucedan ( STS de 10 de mayo de 1985).*

*En este caso, no aparecen justificados por el Ayuntamiento todos los requisitos legales y jurisprudenciales necesarios para declarar válidamente la caducidad de la licencia de obra.*

*La caducidad se ha declarado con el previo expediente contradictorio y motivada en que las obras no habían finalizado en el plazo establecido; sin embargo, tal y como aparece en el expediente, la caducidad se funda en dos hechos objetivos, la paralización o inactividad de la obra durante dos años y el transcurso del plazo de 36 meses dado en la licencia; faltando el requisito principal de justificar que la causa de la paralización de las obras es*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6

Sinadurea eta data	
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 28/05/2026	
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 28/05/2026	
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 28/05/2026 13:10:04	

DOCUMENTO: 20261467772
Fecha: 28/05/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia

CSV: 07EA0016657C00T2G0Y3O6U1F6



*imputable al promotor, toda vez que la inactividad no revela por si misma una responsabilidad del contratista. Adolece, por tanto, la declaración de caducidad de la valoración de los hechos y circunstancias que motivan la inactividad de la promotora.”*

Aurrekoarekin bat eginda, honako hau esan daiteke: udalak kasu zehatz bakoitzaren inguruabarrak azter ditzakeela, lizentziaren iraungipen deklarazioa bidezkoa den ala ez erabakitzeke, edo, bestela, baimendutako obrak egitea ahalbidetzeko, aldez aurretik hartutako erabakiek honako erabakia lotu gabe; izan ere, indarraldia luzatzea baimentzearen bideragarritasunari buruzko erabakia egoera bakoitzaren inguruabarrak baloratu ondoren egin behar da.

Gure kasuan, azaldutako doktrina aipatuz, esan genezake epeak agortuta egon badaude ere, erabakigarriena zera dela: obrak hasi ez izana ez da “bertan behera uzteko zalantzarik gabeko jarrera edo borondate” baten ondorio, baizik eta lizentziari loturiko eztabaiden inguruko auzi egoera luze baten emaitza. Egoera horren ondorioz, hainbat errekurtsio jarri dira, hala administrazio bidean, nola auzibidean.

Azpimarratu behar da, gainera, Bermeoko Udalak inguruabar hori bera baloratu zuela, eta, bertan, iraungitze deklarazioa ukatu zela, jarduerarik eza sustatzailearekin zerikusirik gabeko arrazoi batengatik zela argudiatuta. Ondorioz, eta nahiz eta kasu zehatz bakoitzaren inguruabarrak baloratu behar, ez da ikusten inguruabarren funtsezko aldaketarik, orain beste ondorio bati eustea ahalbidetzen duenik.

Azaldutako guztiagatik, ezin daiteke baieztatu titularrak proiektua bertan behera uzteko nahi argirik duenik, eta obrak ez hastearren arrazoa berea denik. Hori horrela, eta udal honek bere garaian (Bermeoko Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko ekainaren 8ko ebazpena) baloratu zuen bezala, espedientean egiaztatuta geratu da obra lizentziak ez hastearren arrazoa ez dela izan jardueraren titularraren errua.

Hirugarrena.- Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.q) artikulua arabera, zein 2/2006 Legeko 209.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eskumena Alkatearena da; hala ere, 2026 1131 Alkatetza Dekretuz eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.



## Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2026ko otsailaren 17an \*\*\*\*3142S NAN zenbakidunak Arostegi kaleko 17. zenbakian igogailua jartzeko emandako hirigintza lizentziaren aurka ezarritako iraungitze eskaera ezeztatzea.

Hori dela eta, lizentziaren epeak ondorengoak izango dira:

- Obrak hasteko epea: Prozedimendu zibileko epaia irmoa denetik 3 hilabetekoa.
- Obrak exekutatzeke epea: 6 hilabetekoa.
- Interesdunari egotz dakioken arrazoiren batengatik etenik egotekotan, etanaldia hilabetekoa.

BIGARRENA.- Interesdunei erabakiaren berri ematea.

HIRUGARRENA.- Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

## 10.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

## 11.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeke gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

*Orri oinean sinatzaileak eta datak*



### Sinadurea eta data

